

2018ko Memoria

Euskara Arloa



AURKIBIDEA

00. ANTOLAKETA OROKORRA

01. Planak
02. Batzorde Aholkulariak
03. Antolaketa
04. Aurrekontua
05. Kalitatea hobetzeko tresnak

01. BARNE NORMALIZAZIOA

01. Kudeaketa-Plana
02. Saisetako planak
03. Udaltzaingorako plana
04. V. Plangintzaldi amaierako ebaluazioa / Egoeraren diagnostikoa
05. Komunikazioak sailetan
06. San Andres Fundazioko plana
07. Lan-mahaia
08. VI. Plangintzaldia. Barne erabilera. Planaren diseinua
09. Udal Kirol Patronatuko plana
10. Trebakuntza-saioak
11. Zuzenketa-aholkularitza
12. Estandarizazioa
13. Ebaluatzaile Bikain ziurtagiria
14. Lanpostuei Hizkuntza Eskakizuna ezarri
15. Langileen eskolaratzea
16. HE akreditazio probak
17. Langileen harrera
18. Aldahitz (Eusle dinamika)
19. Euskarazko baliabide informatikoak
20. Saisetako hizkuntza
21. Batzordeetako hizkuntza
22. Kontratuen jarraipena
23. Diru-laguntzen jarraipena
24. Ordenantzaren jarraipena
25. Eskuliburua 2017
26. Euskaraldia Udaletxean

02. EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLAN

01. *Zorionak* diptikoa
02. Euskarazko Produktuen katalogoa
03. Hazi Hezi aldizkariaren banaketa
04. Guraso tailerrak *Bularretik Mintzora*
05. *Jira Bueltan* betiko 50 kanta eta jolas

06. Kalian Jolasian eta musika auzoz auzo
07. HH eta LHko ikastetxeekin lankidetza bilerak
08. DBH, Batxilegoa eta LHko ikastetxeekin lankidetza bilerak
09. Antzezlanetarako sarrerak oparitan
10. *Gu ere bertsotan 2017-2019*
11. Umeen Bertso Jaialdiak
12. Tramankuluak ikasgelan
13. Euskara Zine Aretoetara 2017-2018
14. Ongi Etorri Euskarara
15. Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetza bilerak
16. *Txikitasunean handi* motibazio saioak DBH1
17. *Txikitasunean handi* motibazio saioak DBH3
18. *Zergatik ez* motibazio saioak Batxilergoa
19. Bularretik Mintzora
20. *Bagabigahiga* emanaldia
21. Mintzomodroa Lanbide Heziketa
22. Bertsolaritza Motibazio tailerra DBHi
23. Motibazio saioak Lanbide Heziketa
24. Barnetegia DBH2
25. *Gurasoak ere eskolara* egitasmoa 2017-2018
26. Euskaltegien lehiaketa: e-Berba lehiaketa
27. Filmazpit
28. Sentsibilizazio saioak aisialdi eta kiroltako begiraleentzat
29. Multikirolak 2017-2018
30. Transmisio Mintegia
31. Hedabideak
32. Hitzaldia: Itzaltako kalabaza berpiztea
33. UEU diru-laguntza deialdia
34. Euskara diru-laguntza izendunak

03. AKEBAI

01. Akekideen erregistroa
02. Akekideen Batzarra
03. Ekipoa
04. Ekitaldiak Mahaia
05. Kirol Mahaia
06. Komunikazio Mahaia
07. Kultura Mahaia
08. Transmisio Mahaia
09. Euskaraldia Koordinatzeko Batzordea
10. Euskaraldia
11. Euskararen Agenda
12. Hamaika Berbaldi
13. Musikala
14. Eusliderrak
15. Tantanez Tantan
16. Euskararen Eguna


04. UDAL EUSKALTEGIA

01. Plantila
02. Eskaintza
- 03.. Matrikula epeak eta egutegia
04. Tasak eta tarifa bereziak
05. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua
06. Ikaslearen profila
07. HABEren aztertzaileak
08. Egiaztatzegintza
09. Kanpo ekintzak
10. Liburutegi zerbitzua

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN PLANAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- ESEP Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana 2018-2022
- Barne Erabilera Plana 2018-2022
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2017-2018 ikasturteko plana



EPEA: 2018

GASTUA: Euskara Arloaren aurrekontu osoa

BALORAZIOA:

Euskararen erabilera normalizatzeko VI plangintzaldia 2018ko urriaren 29an eman du ontzat Udaltzak. ESEP plangintzaldi berria euskara batzordean aurkeztu eta ontzat eman da. ESEPen kasuan ez da balorazio berezirik egin, AKEBAI martxan jartzeko egin zelako.

Udal euskaltegiak ikasturtekako plana eta memoria egiten du.

IZENBURUA: BATZORDE AHOLKULARIAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:



Euskara Batzordea:

- Presidentea, PSE-EEko zinegotzia.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat
- Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Idazkaria, Euskara Arloko zuzendaria

Hamabostean behin biltzen da, asteartean 12:30ean.

ESEP eta AKEBAko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

ENBA:

- Batzordeburua, PSE-EEko zinegotzia
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat
- Langileen batzordearen ordezkaria
- Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna
- Hizkuntza normalizatailea
- Formazio teknikaria
- Idazkaria, Euskara Arloko Zuzendaria

Ez dauka maiztasun zehatzik, baina urtean 3-4 batzar egiten dira, asteartean 12:30ean.

Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.

EPEA: 2018

GASTUA: Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

BALORAZIOA:

Euskara Batzordea:

16 batzorde egin dira, 79 gai landu dira.

ENBA

6 batzorde egin dira, 16 gai landu dira.

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 12 lagun gaude.



Kargua	Oharrak
Arloko Zuzendaria eta euskara teknikaria	
Barne normalizatzailea	
Trebatzaile/ Itzultzaile	Itzulpen zerbitzurako lanean
Euskara Formakuntza	Pertsonal sailerako lanean
AKEBAI dinamizatzailea	
Euskaltegiko zuzendaria	
Idazkari Akademikoa	
Irakasleak:	
- 3, plantilakoak lanaldi osoz	
- 1, plantilakoa, egun erdiz lanean uztaile arte. Irailetik aurrera lanaldiaren 2/3	
- 1, aldi baterako egun osoz.	
- 2, aldi baterako, egun erdiz	
Administraria	

EPEA: 2018

GASTUA: 566.301,51 €

BALORAZIOA:

Udal euskaltegirako bi irakasle kontratatu behar izan dira aldi baterako. Bat egun erdiz eta bestea egun osoz.

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago:



EPEA: 2018

GASTUA:

	DIRU-SARRERAK	GASTUAK
EUSKARA ARLOA	525.147,42 €	900.253,78 €
• Euskara Zerbitzua	54.553,50 €	333.850,04 €
• Euskaltegia	470.593,92 €	566.403,74 €

IZENBURUA: KALITATEA HOBETZEKO TRESNAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa (Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua) etengabe ari da kalitatea hobetzen, horretarako hainbat lan egin ditu urtean zehar:


- **Langileen etengabeko formazioa:** eguneratzeko eta udaleko gainerako zerbitzuei, herritarrei eta euskaltegiko ikasleei zerbitzu ona eman ahal izateko.



- **Lankidetzak: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundian Udalekin** egitasmoaren barruan lankidetzan jarduten da
- **Euskaltegian Curriculum:** HABEren aginduari jarraituz Euskaltegiak curriculum berria diseinatu du eta ondoren HABEren oniritzia jaso du. Hala ere, hori hobetzen jarraituko du.
- **Zerbitzuen Karta:** euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak lehen aldiz zerbitzuen kartak egin dituzte. Horietan eskaintzen diren zerbitzuen berri ematen die herritarrei. Gainera, zerbitzu horiek aurrera eramateko konpromiso batzuk hartu dira kalitatea oinarri direla. Konpromiso horien betetze-maila, aldiro-aldiro neurtuko da eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.
- **Prozedurak sinplifikatzea:** Udal mailan egiten den lana eraginkorragoa izan dadin martxan jarri den proiektua da. Horri erantzunez Euskaltegiak hainbat Prozedura sinplifikatu ditu. Hauexek: Matrikulazioa, Ebaluazioa, Ebaluazioen emaitzen aurkako erreklamazioak, Autoikaskuntza, Liburutegi zerbitzua, zuzendari eta idazkari akademiko izendatze prozesuak.

IZENBURUA: KUDEAKETA-PLANA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planari dagokion 2018ko kudeaketa-plana.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2018ko eginkizun nagusiak izan dira V. Plangintzaldiaren ebaluazioa egitea eta 2018-2022 epealdirako plana diseinatzea, onartzea eta komunikatzea.

Horiez gain, aurreko urteko kudeaketa planaren zenbait ekintzarekin jarraitu dugu: trebakuntza, batzordeetan erabiltzen den hizkuntzaren gaineko jarraipena, kontratuetako hizkuntza baldintzen jarraipena...

Bestalde, 2018rako 19 ekintza aurreikusi ziren. Horien % 36 bete dira, beste % 36 erdizka bete dira eta gainerako % 26a bete gabe gelditu da: zenbait elementuren jarraipena (ikus-entzunezkoak, iragarki ez-ofizialak eta sustapen materialak), prentsa-oharrak euskaraz sortzea, lanari lotutako hizkuntza paisaiari dagozkion irizpideak zehaztea eta langile berriei harrera egitea. Ikusi jarraipena [Hemen](#)

IZENBURUA: SAILETAKO PLANAK

DESKRIBAPENA: 2018 urtean, udatik aurrera, sailez sail plantxoak egiten hasi gara, V. Plangintzaldia ebaluatzeko egindako galdetegien emaitzak ezagutu ondoren.

EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Aurtengoa trantsizio urtea izan da; izan ere, urteko lehenengo hilabeteak eman ditugu V. Plangintzaldia ebaluatzen eta ebaluazio horretako datuak lantzen eta ondorioak ateratzen. Beraz, aurreko urteko mikroplanekin, 2017koekin, jarraitu dugu lanean.

2018 urtearen amaiera aldera, idatzi da 2019rako mikroplana sail hauetan:

- Diruzaintza
- Hirigintza
- Udaltzaingoa
- Liburutegia
- Gizartekintza

IZENBURUA: UDALTZAINGORAKO PLANA

DESKRIBAPENA: 2017an abiatutako esku hartzearekin jarraitu dugu. Trebakuntza eman dugu eta Eusle metodologia erabili da hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2018an zehar hauek egin dira:

Trebakuntza saioa:

3 talde ezberdin aritu dira. Guztira 33 lagun.

Talde horietako batek hasiera 2017an izan zuen;
gainerakoak 2018ko lehen lauhilekoan ibili dira.

Eusle dinamika:

3 taldetan proposatu da; bitan onartu da. Guztira 18 lagun.

Plana:

Gainerako sailetan bezala V. Plangintzaldiko ebaluazioa egin da.
Galdetegiari udaltzainen % 70ek erantzun diote.

2018ko udazkenean aurreko saileko planari ebaluazio egin eta
plantxo berria diseinatu da.

IZENBURUA: V. PLANGINTZALDIAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA/ EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

DESKRIBAPENA: Euskararen erabilera Eibarko udalean normalizatzeko V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egin dugu, udaleko langileok (baita patronatu eta fundazioetakoek ere) erantzun diogun galdetegi bateko datuen bitartez.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Planaren ebaluazioa egiteko Jaurlaritzak gure esku jarritako galdetegia erabili dugu. Galdetegiko datuak lantzeko aplikazio informatikoa ere Jaurlaritzak eskuratu digu.

Alde batetik, aurreko planaren ebaluazioa egiteko asmotan, planean sartutako langileen galdetegiak erabili dira. 147 lagunek erantzun diote galdetegiari, langileen % 89k. Datuen analisisa [hemen](#).

Bestalde, Eibarko Udalean orokorrean egoera zein den aztertzeko gainerako langileek ere erantzun diote galdetegiari: 3 fundazioetako langileek, Mantenimenduko lantaldekoek eta garbitzaileek (guztira 278 lagunek). Ikusi datuak [taula honetan](#)

Datuak sailka atera ditugu eta departamentuetan egin ditugun bileretan azaldu ditugu, bakoitzari bereak.

Datuok erabili dira ondoren VI. Plangintzaldiari dagokion plana diseinatzeko.

IZENBURUA: KOMUNIKAZIOAK SAILETAN

DESKRIBAPENA: Sail eta departamentuetan komunikazio batzarrak egin dira Euskara arlotik bideratzen diren ekimenen berri emateko eta planaren diagnostikoa bideratu, ebaluazioaren berri emateko eta plan berriaren ildo estrategikoak azaltzeko.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

14 sailetan eta 3 fundazioetan egin ditugu bilerak:

Diruzaintza, Euskara, Gizartekintza, Hirigintza, Kultura, Liburutegia, Obrak, Pegora, Pertsonala, Zerbitzuak, Brigada, Udaltzaingoa, Kontuhartzailletza eta Informatika sailetan eta San Andres fundazioan, Kirol patronatuan eta Musika eskolan.

125 lagun inguru egon dira bileretan.

IZENBURUA: **SAN ANDRES FUNDAZIOKO PLANA**

DESKRIBAPENA: San Andres fundazioko hizkuntza egoera aztertuta, erabilera plana eta hizkuntza irizpideen eskuliburua osatu ditugu bertako langile talde batekin lankidetzan.



EPEA: 2018 urtea

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Euskararen egoeraren diagnosis egin da.

Euskararen lan mahaia osatu da, sei esparrutako langileek osatua (gerentzia-administrazioa, superbisioa, erizaintza, harrera, garbiketa, esku-hartzea). Lau bilera egin dira.

[Euskararen erabilera normalizatzeko plana 2018-2022](#), [2018ko kudeaketa plana](#) eta [hizkuntza irizpideak](#) sortu dira. Euskara planak ENBAren oniritzia izan du, eta San Andres fundazioak onartu du azaroko batzarrean.

Beste zazpi bilera egin dira arloka, diagnosiaren berri emateko, plan proposamena azaldu eta haien iradokizunak jasotzeko eta beharrak aztertzeko. Harreragileekin 45 minutuko 12 trebakuntza-saio egin dira.

Zenbait dokumentu euskaratu dira: sarrerako oharra, lanari lotutako errotulazioa, langileentzako oharra eta gutunak, prozedura jakinekin lotutakoak (erosketa baldintzak, egoitzaren gaineko informazio orokorra, erabiltzaileen eta langileen eskubideak eta betebeharrak, baimen informatua, aurretiazko borondateen agiria), dokumentu informatiboak eta esaldi erabilgarriak.

IZENBURUA: LAN-MAHAIA

DESKRIBAPENA: Udal-sailetako ordezkariak osatutako mahai teknikoa da. Helburua: Euskara planaren garapenaren jarraipena egitea sailka; hartu beharreko neurriak proposatzea, lehenetsunak zehaztea, eta aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak adostea, ENBAri proposatzeko.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Hauek dira mahaiaren partaideak duten sailak: Obrak, Liburutegia, Diruzaintza, Pertsonala eta Antolamendua, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Hirigintza, Kontuhartzailatza, Kultura, Alkatetza, Zerbitzuak, Euskaltegia eta euskara, Brigada.

Sei batzar egin dira urtean zehar, eta asistentzia % 67koa izan da. Aurten V. Plangintzaldiaren ebaluazioa egin dugu. Lan mahaiko kideen laguntzaz antolatu da eta bertan azaldu dira ebaluazioaren emaitzak. Emaitza horietatik abiatuta proposatu den planaren berri ere eman da (Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaldia). Horrez gain, Euskaraldiaren antolaketan ere parte hartu dute lan mahaiko kideek Hamaikako kideekin batera.

IZENBURUA: **VI. PLANGINTZALDIA. BARNE ERABILERA
PLANAREN DISEINUA**

DESKRIBAPENA: Bost urtetik behin barne erabilera normalizatzeko plana berritu behar izaten dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 DEKRETUA betez. Aurten, 2018-2022 epealdirako plana diseinatzea, proposatzea eta Udal Batzan onartzea egokitu zaigu.

EPEA: 2018 urtea

GASTUA: Barne-baliabideak

ARDURADUNA: **Junkal Txurruka**, Arloaren zuzendaria

LANKIDEAK:

Karmen Bikuña, normalizatzailea

HPS

Euskara Batzordea

Lan-mahaia

BALORAZIOA:

Barne Erabilera Plan berriak V. plangintzaldiaren ebaluazioa izan du abiapuntua eta gidarizat Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak VI. plangintzaldirako egindako txostena, *EAEko Herri Administrazio eta Erakundeetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetarako irizpide orokorrak* izenekoa.

Planaren zirriborroa ENBA batzordean aurkeztu da ekainaren 12an eta batzordean ordezkariak duten alderdiek proposamenak egin dituzte.

Proposamenok gehituta Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren aldeko txostena jaso da irailaren 4an.

Udalbatzak bere oniritzia eman dio urriaren 29an.

Hona hemen [plana](#).

IZENBURUA: **UDAL KIROL PATRONATUKO PLANA**

DESKRIBAPENA: Kiroldegiko hizkuntza egoera aztertuta, erabilera plana osatu dugu bertako langile talde batekin lankidetzan



EPEA: 2018 urtea

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Aurreko plangintzaldiaren ebaluazioa egin dugu, ebaluazioaren emaitzak komunikatu zaizkie Udal Kirol Patronatuko langileei eta hurrengo bost urterako [planaren zirriborroa](#) egin da. Onartzea falta da.

IZENBURUA: TREBAKUNTZA-SAIOAK

DESKRIBAPENA: udaletxeko langileentzako trebakuntza-saioak eskaini, taldeak egin eta eman.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

3 talde aritu dira, guztiak udaltzainenak:

Agenteen talde bat, 2017ko azaroan hasitakoa (bi ordutegitan).
Agenteen beste talde bat (aurreko urtean ere ibilitakoak), otsailetik maiatzera bitartean (bi ordutegitan)
Leihatilan lan egiten duten txanda-arduradun bi (urtarriletik apirilera)
Bakarkako saioak subjefearekin

33 lagun aritu dira eta ordu beteko 10 saio izan dituzte.
Talde guztien bataz besteko asistentzia: % 70

Bestalde, San Andres egoitzako bi harreragilek ere jaso dituzte trebakuntza saioak, 45 minutuko 12 saio, hain zuzen ere.

IZENBURUA: ZUZENKETA-AHOLKULARITZA

DESKRIBAPENA: Udal-sailtako langileei testuak euskaraz sortzen laguntzea, haiek idatzitakoak zuzentzea eta euskaraz lan egiteko lagungarriak diren baliabideen berri ematea.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Zuzenketa zerbitzua

Zuzendu edo itzultzen lagundutako barruko testuak 195 izan dira; kanpokoak 5.

Zuzenketa: Esku artean izandako testuen % 60.

Itzulpenak: % 40

Luzerari dagokionez, batzuk luze samarrak izan badira ere, gehienak testu zatiak edo esaldi solteak izan dira.

18 sail ezberdinetako testuak gainbegiratu dira.

Aholkularitza eta euskaraz lan egiteko baliabideen gaineko informazioa

Informazio hori gehienetan e-maila bitartez eskuratu zaie langileei.

Honako hauen inguruko mezuak bidali dira:

- Euskara ikastaroak euskaltegian
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke deialdiak
- Irakurgaiak abenduan
- Hilero euskarazko ekitaldien agenda
- Beharginendako eskuliburuko irizpideak
- Hamaika berbaldien gaineko informazioa

IZENBURUA: ESTANDARIZAZIOA

DESKRIBAPENA: Gizartekintza saileko dokumentu batzuk estandarizatzeari ekin diogu: batzorde aholkulariaren deialdia eta aktaren hainbat atal euskaraz egiteko moduan jarri eta zenbait diktamen eta ebazpen euskaratu aurrerantzean eredu gisa erabiltzeko.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Gizarte Zerbitzuen Batzorde Aholkulariaren [deialdi bat](#) eta [akta bat](#) euskaratu dira, eredu gisa erabiltzeko aurrerantzean; izan ere, ikusi da batzarreko deietako puntuak askotan errepikatu egiten direla eta aktetan jasotako informazio orokorra ere antzekoa izaten dela.

Gizartekintzako langileen esku jarri da, eta bilera bat egiteko asmoa adierazi bada ere, ez da bilerarik egin.

IZENBURUA: EBALUATZAILE BIKAIN ZIURTAGIRIA

DESKRIBAPENA: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa egiaztatzen duen Bikain ziurtagiria eskuratzeko kanpo-ebaluazioetan hartzen dugu parte. Berebiziko garrantzia dauka eredia ondo ezagutzeak; izan ere, euskararen barne-erabilera normalizatzeko plan estrategikoa Bikain egitura kontuan hartuta eta harekin lerrokatuta egin baita eta esperientzia ona da praktika berriak ezagutzeko.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2018ko irailaren 21ean eguneratze- eta prestakuntza-saioa izan dugu.

2018ko azaroaren 14 eta 21ean beste enpresa bat ebaluatzeko bisitak egin eta txostena adostu dugu gainontzeko ebaluatzaileekin.

IZENBURUA: LANPOSTUEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EZARRI

DESKRIBAPENA: Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua. Ikusi [HEMEN](#) protokoloa.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2018an 8 lanposturi ezarri zaie HE: 7 lanpostu RPTkoak dira, eta beste 1 Musika Eskolakoa. LANBIDEn bidez egin diren aldi baterako kontratazioen kasuan Pertsonal sailetik ez da eskaerarik jaso.

IZENBURUA: LANGILEEN ESKOLARATZEA

DESKRIBAPENA: udaletxeko langileek eta fundazio eta patronatoetakoek euskalduntze ikastaroak IVAPen edo udalaren kontura egiteko aukera izaten dute.

Horretarako ENBAn onartutako [araudia](#) bete behar da



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

GASTUA:


BALORAZIOA:

2017-2018 ikasturtean 17 langile matrikulatu dira: 13 langile IVAPen kontura, eta 4 langile Udalaren kontura. Ikasturtean zehar 5 baja izan dira. Baja izan ez diren kasuetan, orokorrean, langileen jarrera/aprobetxamendua ona edo oso ona izan da.

Ikusi [hemen](#) informazio zehaztua.

IZENBURUA: HE AKREDITAZIO PROBAK

DESKRIBAPENA: udaletxeko eta fundazio eta patronatoetako langileak IVAPek egiten dituen hizkuntza probetara joateko tramitazioa egiten da urtean bi deialditan.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Lehenengo deialdian 16 eskaera bidali dira IVAPera. Horietatik 13 langile aurkeztu dira, eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 1 (4. HE)
- EZ GAI: 12

Bigarren deialdian, 10 eskaera bidali dira, eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 2 (4. HE)
- EZ GAI: 8

IZENBURUA: LANGILEEN HARRERA

DESKRIBAPENA: Langile berri bat udalerako lanean hasten denean, kontratua sinatzean Beharginendako eskuliburua ematen zaio eta azaldu egiten zaio zeintzuk diren udalean lanean diharduen bitartean hizkuntzari dagokionean izan behar duen jokabidea.

Ikusi [HEMEN](#) eskuliburua



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Aurreko urtean bezala egin zaie harrera langile hasi berriei: euskara planaren berri eman eta Beharginendako Eskuliburua banatu eta azaldu zaie.

VI. plangintzaldirako helburua da langile hasi berrien harrera sentsibilizazio saio batekin osatzea eta oraindik horretan hasi ez bagara ere, egutegi moduko bat eta landu beharreko gaiak zehaztu dira. 2019an hastekotan gara.

IZENBURUA: ALDAHITZ (EUSLE DINAMIKA)

DESKRIBAPENA: Aldahitz metodologia zenbat sail eta zerbitzutan proposatzea, hizkuntza ohiturak aldatzeko asmotan.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Hiru sail edo zerbitzutan proposatu da Eusle dinamika: Pegoran, Liburutegian eta Udaltzaingoan. Udaltzaingoan ez da dinamika amaieraraino eraman. Pegoran eta Liburutegian urtarrean 10ean jarri zen martxan. Bi hilabetez jardun zuten eta hiru aldiz neurtu zen erabilera: dinamika hasi aurretik, amaitu ondoren, eta amaitu eta bi hilabetera.

Hauek dira Pegorako emaitzak, prozesu osoa amaitutakoan:

- **Bataz besteko erabilerak 11 puntu egin du gora** 1. neurketatik (dinamika aurkeztu zenean egindakoa) azken neurketara (praktika bukatu eta bi hilabete pasatu ondoren egindakoa), % 47,7tik % 58,7ra hain zuzen ere.
- Tartean egin zen neurketan (praktika bukatu eta berehala) erabilera % 56,5ekoa izan zen; hau da, **2. neurketatik 3.era ere handitu egin da erabilera.**
- **Erabilera gehiago handitu da eusle izan ez direnen artean.** Horien artean 13,7 puntu egin du gora 1. neurketatik 3.era.
- **Langilez langile hartuta, denen kausan, batean izan ezik, igoera izan da. Kasu batzuetan, gainera, oso nabarmena: 19 puntuko aldea pertsona baten kasuan.**

Jarraipen zehatzagoa [hemen](#)

[Eta hauek Liburutegiko emaitzak:](#)

- **Bataz besteko erabilerak 15 puntu egin du gora** 1. neurketatik azken neurketara, % 33tik % 48ra hain zuzen ere.
- Tartean egin zen neurketan erabilera % 49koa izan zen; hau da, **2. neurketatik 3.era oso gutxi jaitsi da.**
- **Langilez langile hartuta, denen kausan igoera izan da. Kasu batzuetan**, gainera, **oso nabarmena**: 26 puntuko aldea pertsona baten kasuan.

Jarraipen zehatza [hemen](#)

Udaltzaingoan hiru taldetan proposatu zen eta bitan onartu. Dinamika abian jarri zen talde batean seigarren astean bertan behera gelditu zen partaideek horrela erabaki zutelako. Hirugarren taldean, berriz, oporraldiaren hasierak ekarri zuen dinamika etetea, partaide kopuru txikia izanik ezin zelako jarraitu.

IZENBURUA: EUSKARAZKO BALIABIDE INFORMATIKOAK

DESKRIBAPENA: Barne erabilera planean jasotako ekintza bat da era mailakatuan tresna eta aplikazio informatikoak (Office paketea) euskaraz instalatzea langileen ordenagailuetan. Horretarako plana diseinatu da.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Barne erabilera planean jasotakoaren arabera, lehentasunak kontuan hartuta plana zirriboratu da. 2019an ekingo zaio ezarpen plana zehazteari.

IZENBURUA: SAILETAKO HIZKUNTZA

DESKRIBAPENA: Euskarazko sailak izendatzeko proposamena egin eta baliabideak eskaini.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2017an bi zerbitzuri proposatu zitzaion Euskarazko atal izendatzea eta horretan lan egiten jarraitu dugu. Izan ere, modu formalean izendatu ez badira ere, Eibarko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Planean jaso da. Hemen 7. ildo nagusian idatzitakoa:

Une honetan Euskara-arloa da euskarazko atal bakarra eta gainontzekoak, atal berezikoak izan ezik, atal elebidunak dira. Plangintzaldian zehar aztertuko da zenbait sail edo zerbitzu euskarazko atal izendatzea, orain arte bi zerbitzutan (Komunikazioan eta Liburutegian) eman diren urratsei jarraipena emanaz. Beraz, hainbat neurri eta ekimen sustatuko dira (hizkuntza-ohiturak aldatzeko dinamikak, euskarazko baliabide informatikoak, euskarazko prestakuntza) atal horietako eginkizunak batez ere euskaraz bete daitezzen.

IZENBURUA: BATZORDEETAKO HIZKUNTZA

DESKRIBAPENA: ENBA batzordetik proposamena egiten zaie batzorde aholkulari eta lan-batzordeei erabiltzen duten hizkuntzaren jarraipena egin dezaten urtearen amaieran.

2016an bidali zen diktamena ENBAtik adostu zezaten zein hizkuntza erabiliko zuten nagusiki batzordeetan (15 batzordetara bidali zen proposamena, 11k adostu zuten lanerako hizkuntza)

- 5 batzordek erabaki zuten **euskara** izango zela **hizkuntza nagusia**
- Batek erabaki zuen lan hizkuntza **ele biak izatea**
- 5 batzordek erabaki zuten **gaztelania** izango zela hizkuntza nagusia
- 4 batzordek ez zuten erantzun
(Informazio gehiago [hemen](#))



EPEA: 2018ko abendua

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Abenduko jarraipena

12 batzordetara bidali da jarraipena egiteko fitxa eta 8ren jarraipena jaso da.

Orokorrean adostutakoa betetzen da. Gainera, kasu batean hobekuntza nabarmena igarri da: lehen aktak gaztelaniaz egiten ziren eta orain ele bietan egiten dira eta ahozkoan ere nabarmena izan da erabileraren igoera.

Ez betetzeak, aurreko ebaluazioetan bezala, gaztelania nagusi den batzarretan gertatu da. Horietan sarrera eta laburpenak ez dira euskaraz egiten, nahiz eta adostutako testuan horrela jasota egon.

Informazio gehiago [hemen](#) (batzordeetako hizkuntza orria)

IZENBURUA: KONTRATUEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak egiten dituen kontratuetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da.

Eibarko udaleko *Kontratzailearen profila* ataleko eta *Kontratuen erregistroa* web orriko informazioa erabiltzen dugu kontratuen berri izateko. Zenbaitetan kontratuen ardura dutenak jartzen dira gurekin harremanetan zer-nolako hizkuntza-irizpideak jarri behar dituzten aztertzeko.

Kontratuak *KontratuZain* aplikazio informatikoan sartzen ditugu eta bertan zehazten dugu, kontratu mota eta luzeraren arabera, zeintzuen jarraipena egingo dugun eta noiz.

Jarraipena egiteko orduan, kontratuaren arduradunari galdetzen diogu jarritako irizpideen betatze-mailaren inguruan.



EPEA: 2018

GASTUA: 0 € (aurten ez dute ezer kobratu KontratuZain aplikazioagatik) eta barne-baliabideak

BALORAZIOA:

34 kontratu zenbatu dira aurten:

- Zerbitzu kontratuak: 17 (horietako 12 KontratuZainen; horiez gain beste 4 ere bai)
- Zerbitzu publikoak kudeatzekoak: 1 (KontratuZainen sartuta)
- Obra kontratuak: 8 (8ak kontratuZainen)
- Hornidura kontratuak: 8 (horietako 5 KontratuZainen)

Zerbitzu kontratuak:

Batzuk negoziatuak, publizitaterik gabe dira. Horietan hizkuntza baldintzarik ez. Gainerakoetan jartzen dira. Kontratu zainen aurten indarrean sartu diren 16 kontratuetatik erdiei ezarri zaie neurraldia eta lau neurketa egin dira. Lanpostuei ezarritako gaitasuna guztietan bete da; harremana herritarrekin, berriz, ez da beti bete. Kontratu hori ez da amaitu eta enpresako arduradunekin hitz egingo da baldintza orrietako betebeharrak gogorarazteko. Lehenagoko beste 3 kontratutan ere egin da neurketa. Hauetan bete da ezarritakoa.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak:

Guztietan jartzen dira hizkuntza baldintzak. Bakarra izan da aurtengoa; jarraipena egiteko fitxa bidali da, baina ez da oraindik erantzunik jaso. Lehenagotik datozen kontratu eta hirutan egin da jarraipena. Betetze maila % 90etik gorakoa da.

Obra kontratuak:

Errotulazioari dagokion betebeharra jartzen zaie. Ez da jarraipenik egiten.

Hornidura kontratuak:

Bitan bakarrik ezarri dira hizkuntza baldintzak. Ez da jarraipenik egin. Egindako kontratuen erregistroa [hemen](#). Kontratu zainen jarraipena egindakoak, berriz, [hemen](#) kontsultatatu.

Irizpideen betetze-maila:

	Betetze-maila	Batez beste *	Lanp. betetzeko	Lan. beteta	Lanpostuak
Zerbitzu kontratuak	% 50	2,83	13	13	% 100
Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak	% 95	3,50	2	2	% 100

*batez besteko maila, 1etik 5erako eskalan; 1 dena gaztelaniaz, 5 dena euskaraz.

IZENBURUA: DIRU-LAGUNTZEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak ematen dituen diru-laguntzetan hizkuntza-lirizpideak jartzen diren jarraitzen dugu.



DIRU-LAGUNTZAK

EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

85 diru-laguntzen jarraipena egin dugu.

Guztiak ele bietan argitaratu dira.

Hizkuntza-baldintzak jarri dira diru-laguntza izendunen % 94an eta norgehiagoka araubidez emandakoen % 83an.

Ez da hizkuntza baldintzarik jarri, ez ebaluazio bakoiztu bidez emandakoetan, ez alderdi politikoei emandakoetan.

IZENBURUA: ORDENANTZAREN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Euskararen Ordenantza du indarrean 2016ko ekainetik. Ordenantza horren betetze-mailaren jarraipena egiten da ENBA eta Euskara Batzordean. ENBA n udal barruko eta erakunde autonomoei dagokiena eta Euskara Batzordean udalerriko neurriei dagokiena.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak


BALORAZIOA:

2018 amaieran egin zaie jarraipena Euskararen Ordenantzaren zenbait adierazleri.

Egindako jarraipena kontsultatzeko [2018ko jarraipena](#).

IZENBURUA: ESKULIBURUA 2017

DESKRIBAPENA: 2017an berriro zen Udal-Beharginendako eskuliburuko argibideak eta jarraibideak gogoratzen jarraitu e-postaz.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Posta elektronikoren bitartez erakutsi diegu langileei 6. ataletik 11. atalera. Langile hasi berriei ematen jarraitu dugu.

IZENBURUA: EUSKARALDIA UDALETXEAN

DESKRIBAPENA: Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egin den 11 Egun Euskaraz egitasmoa da. Udalak ere parte hartu du egitasmoan. Euskararen lan-mahai izan da talde motorra. Langileekin eta zinegotziekin hamaikakoa osatu da eta prestaketa lanak bideratu dira.



EPEA: 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Udalak bat egin du Euskaraldiarekin, eta adierazpen instituzionala onartu du Bozeramaileen Batzordeak irailaren 18an; ondoren, Udalbatzan eman da jakitera.

Hamaikakoa osatu da; 7 langilek eta 4 zinegotzik osatu ere. Taldearen aurkezpena egin da eta argazkia atera langileak izena ematera animatzeko. Informazio saioak antolatu dira udal langile eta zinegotziei egitasmoa azaltzeko eta aholkuak emateko.

Euskaraldiak iraun bitartean izan diren jendaurreko ekitaldietarako protokoloa onartu du Gobernu Batzarrak. Horren arabera, ekitaldi publikoetan Euskaraldiaren berri eman da, kartelak eta irudiak jarri dira ikusgai eta udal ordezkariak aukeratutako rolaekin bat egiten duen portaera erakutsi dute. Euskaraldiaren lehenengo egunean hasiera ekitaldia egin da eta bertan banatu dira Eibarren izena emandakoentzako txapak eta argazkia atera da. Argazkia udal webgunean eta sare sozialetan zabaldu dira.

Ehundik gora lagunek hartu dute parte Euskaraldian. Eibarren erregistratu diren 85etik % 58 ahobizi izan da; % 27 belarriprest eta % 14 bihotz goxo (askok beren herrian eman dute izena).

Amaitutakoan galdetegia bidali zaie langile eta zinegotziei ariketaren balorazioa egiteko.

25 lagunek bakarrik erantzun diote. Horietako % 84k ahobizi rola hartu dute eta % 16k belarriprest.

- % 80k esan dute egin dutela euskaraz normalean gaztelaniaz egiten duten pertsonekin.
- % 72ren ustez igarri da erabileran, gehiago egin omen da.
- % 76ren arabera ekimenak lortu du bere helburua, hau da ohituretan eragitea.
- % 95i gustatu zaio ariketa.

IZENBURUA: ZORIONAK DIPTIKOA

DESKRIBAPENA: Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran “Zorionak” diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



EPEA: 2018 urtea

GASTUA: 2016ko aurrekontukoa 907,50€ (3.000 ale)

BALORAZIOA:

2018 urtean 213 ume jaio dira, horietatik 102 mutilak izan dira eta 111 neskak.

IZENBURUA: EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktu katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.



EPEA: 2018ko azaroa


GASTUA: 2.305,50 €

BALORAZIOA: 2.800 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 1.700 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez.

IZENBURUA: HAZI HEZI ALDIZKARIAREN BANAKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak 2 urteko umeen geletako gurasoei Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitan jasotzeko aukera ematen die. Interesatuak izena eman behar dute.

Horretaz gain ume jaioberrira erregistratzera doazen familiek Hazi Hezi 0 alea doan jasotzen dute.



EPEA: 2018 urtea

GASTUA: 645€ harpidetza eta Pegoran 0 alea banatzea doan izan da.

BALORAZIOA: 2017an baino 12 guraso gutxiagok eman dute izena. 43 gurasok eman dute izena urtebeterako harpidetza doan jasotzeko:

- 8 Aldatzekoak
- 8 San Andresekoak
- 5 La Sallekoak
- 17 Moglekoak
- 4 Arrateko Andra Mari

eta Pegoran 213 familiari banatu zaie 0 alea

IZENBURUA: GURASO TAILERRAK BULARRETIK MINTZORA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta familiekin lankidetzan Galtzagorri elkartearen *BULARRETIK MINTZORA* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan Euskara arloa, udal liburutegia, ikastetxeak eta familiak dira partaide. Egitasmoaren barruan gurasoei zuzendutako tailerrak eta hitzaldiak eskaini dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Helburua haur literaturaren garrantziaz jabetzea eta irakurketa ohiturak etxean sustatzeko familientzako formazioa ematea da.



DATAK:

Otsailak 27an eta martxoaren 6an, 18:00-20:00 PORTALEko Ikastaro gelan **Zer egin liburuekin: kontu kontari gurasoentzako tailerra**. **Irakaslea:** Yolanda Arrieta. Haur Literaturaren ahozko baliabideak ezagutzea. Haurrei eta hurrekin kontuak esatera eta entzutera bultzatzea. Partaideen artean emozio, estetika eta zentzuen bidezko giroa bultzatzea euskaraz.

GASTUA: 570€

BALORAZIOA: Tailerrean **17** lagunek eman zuten izena, 15 emakume eta 2 gizonezko. Asistentzia oso ona izan da. Hitzaldietan egon diren gurasoen balorazioa oso ona izan da 4,8 puntu eman dizkiote 5etik. Irakasleak ikasleen jarrera aktiboa azpimarratu du. Ikasle gehienek horrelako ikastaro gehiago egitea eskatu dute. Saioak bi ordukoak ziren baina egun bietan luzatu egin dira.

IZENBURUA: JIRA BUELTAN betiko 50 kanta eta jolas

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeetako LH1 mailako familiei Badiharduguk sortu duen kanta eta jolasen liburuxka-dvda banatu die Horretarako 600 ale inguru erosi ditu, gutxienez bi ikasturtetan banatzeko adina.

Material hori 2018ko Durangoko azokan ere salgai jarri da.



EPEA: 2018ko azaroan banatu da

GASTUA: 6.318€

BALORAZIOA: 260 ale banatu dira LH1 mailako familien artean. Hau izango da horrelako banaketa bat egiten den azken aldia. Jasotako informazioaren arabera, material hau ez da oso erabilgarria etxeetan, baztertuta gelditzen da. Beste bide batzuk bilatu behar dira material honen erabilera hobetzeko (guraso tailerrak...)

IZENBURUA: KALIAN JOLASIAN ETA MUSIKA AUZOZ AUZO

DESKRIBAPENA: Kaleko euskarazko jolasak egiten dira Euskal Jaien barruan, Udalak Astixa Animazio Zerbitzuaren bidez ostiral arratsaldean 4-8 urte bitarteko umeentzako.

Egitasmo hau garatzeko Udalak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak, Klub Deportiboak eta Eibarko ikastetxe guztiek hartu dute parte, eta jolasen koordinazioaz ASTIXA arduratu da.

Urte honetan berrikuntza batekin etorri Musika auzoz auzo egitasmoarekin bat egin du, eta jolasen ondoren musika eta dantza egon da.



EGUNA: 2018ko maiatzaren 25a 17:00-19:00

GASTUA: Afariketari egitasmoa hitzarmenean sartuta dago

BALORAZIOA: Dagoeneko euskal Jaiaren egitarauan finkatuta dagoen ekitaldia da. Familiak badakite eta gustura hartzen dute. Ume kopuru polita elkartu zen, baina euria hasi zen eta Untzagako karpara joan behar izan ginen lehen jolasa egin eta gero, umeek irrist egiten zutelako. Lekua aldatzeak kalte egin dio egitaruari, megafoniarik gabe geratu ginelako hasieran eta zaila zelako horrela jokoak dinamizatzea.

IZENBURUA: HH eta LHko IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta HH eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 7 ikastetxe daude eta denak dira mahaiko kide.

DATAK:	ASISTENTZIA
2018/01/23	7 ikastetxe
2018/06/05	4 ikastetxe
2018/09/11	6 ikastetxe

GASTUA: 0 €

BALORAZIOA: Ohikoa diren bilerak egin dira. Asistentzia %80koa izan da.

**IZENBURUA: DBH, Batxilergoa eta LHko IKASTETXEEKIN
LANKIDETZA BILERAK**

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta DBH, Batxilergoa eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 3 ikastetxe daude, eta denak dira mahaiko kide. Ikastetxe publiko bakarra dago 3 egoitzatan banatua, eta 2 kontzertatu.

DATAK:

2018/01/24

2018/05/23

2018/09/19

ASISTENTZIA

3 ikastetxe

3 ikastetxe

3 ikastetxe

GASTUA: 0 €

BALORAZIOA: Ohikoa 3 bilerak egin dira. Asistentzia oso ona izan da.

IZENBURUA: ANTZEZLANETARAKO SARRERAK OPARITAN

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleei euskarazko emanaldietako sarrerak oparitzen dizkie.



GASTUA: 0€.

BALORAZIOA: Bigarren urtea izan da ekimen hau martxan izan dela. Eta ez du arrakastarik izan ikasleen artean. Ez da eskaera bat bera ere jaso. Agian, eskaintza aztertu beharko da ikusteko gazteen intereseko ezer egon den.

IZENBURUA: GU ERE BERTSOTAN 2017-2018

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailetan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsolaritza lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

GASTUA: 11.610€

BALORAZIOA: Eibarko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek hartu dute parte. Egitasmoa 18 ikastaldetan burutu da. 360 ume inguruk landu dute bertsolaritza. Gipuzkoako bertsozale elkarteak deituta apirilaren 16an jarraipen batzordea egin da. Bertan 5 ikastetxetako ordezkariak, udaleko euskara teknikaria eta bertsozale elkarteko ordezkaria bildu dira. Ikastetxeen balorazioa oso ona da eta Euskara sailarena ere bai. Umeek bertsolaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozkotasuna lantzen dute. Bertsozale elkarteko irakasleak oso profesionalak dira eta umeekin duten harremana oso egokia da. Ikusi [AKTA](#) eta [MEMORIA](#)

IZENBURUA: UMEEN BERTSO JAIALDIAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin batera Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bitartez "Gu ere bertsoan" proiektuaren ikasturte amaierako ekitaldia izaten da haurren bertso jaialdia.



DATAK:

Maiatzak 21, astelehena: Amaña, Iturburu eta La Salleko LHko 5. Mailako ikasleak

Maiatzak 22, asteartea: Amaña, Iturburu eta La Salleko LHko 6. Mailako ikasleak

Maiatzak 24, osteguna: Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu eta Aldatzeko ikasleak

GASTUA: Coliseoaren erabilera

BALORAZIOA: Oso positiboki baloratzen da emanaldi hauek egitea. Umeen ilusioa eta motibazioa oso garrantzitsuak dira saio horietan. Familiek ere umeek ikasturtean landutakoaren emaitzaz gozatzeko aukera izaten dute eta Coliseoa bete egiten da.

IZENBURUA: TRAMANKULUAK IKASGELAN

DESKRIBAPENA: Jose Ramon Soroizek eskaintzen duen emanaldia da. Eibarko Udalak LH 5eko ikasleentzako motibazio-saioak antolatzen ditu. Eskola orduetan izaten da. 5 saio egin dira, lau Portalean eta bestea Iturburun. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskaraz gozatzea eta idazteko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea.



EPEA:

2018/01/24 11:00 Iturburu

2018/01/25

10:00 Aldatze eta Amaña

11:15 Urkizu eta Arrateko Andra Mari

2018/01/26

10:00 San Andres

11:15 La Salle

GASTUA: 1.600 €

BALORAZIOA: Portalean egin den emanaldi bakoitzean 50 ume inguru egon dira eta Iturburun 75. Beraz guztira 275 umek hartu dute parte emanaldian eta oso arrakastatsua izan da aurten ere.

IZENBURUA: EUSKARA ZINE ARETOETARA 2017-2018

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan edo Portalean ematen dira 14:45-16:30 bitartean.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

GASTUA: 2.014,10 €

BALORAZIOA: TINKOk 8 filma eskini ditu, baina Luke&Lucy ikusteko eskaerik egin ez denez, gainerako 7 filmak eman dira. Aforoa kontuan hartuta 6 filma Coliseoan eman dira eta 1 Portaleko Areto Nagusian. Guztira 1.831 ikusle izan dira. Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

IKASTETXEAK LH:

- San Andres 3 filma
- Aldatze 3 filma
- Amaña 3 filma
- Urkizu 3 filma
- La Salle Isasi 3 filma
- Arrateko Andra Mari 1 filma

IKASTETXEAK DBH

- Itzio 2 filma
- La Salle Azitain 2 filma

IZENBURUA: ONGI ETORRI EUSKARARA

DESKRIBAPENA: Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira astean, Indianokua gaztelekuan. Ikasturte honetan ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatuko da. Eibar BHIIn hauspoa egitasmoaren barruan eskiniko da.



EPEA: Egitasmo honek 2 ikasturte desberdinetako bi trimestre desberdin harrapatzen ditu. Horregatik aldatzen da talde kopurua eta kasu batzuetan egutegia eta ordutegia ere bai.

Bi zatitan garatu da: urtarriletik maiatzaren amaierara eta azarotik abendura.

2017/2018 ikasturtea:

2018ko urtarrilaren 15etik maiatzaren 31ra bitartean garatu da.

Data hauetan lau taldek hartu dute parte, 2 talde Eibar BHI Isasi ikastetxean eta beste bi talde Indianokuan garatu dira, Isasiko 1go taldea : Astelehen-asteazken 2. taldea:Astearte-osteguna. Indianokua Gaztelekuan bi taldek astelehen-asteazken

Ordutegia:

Eibar BHI Isasi :15:00etatik 16:15etara.

Indianokua Gaztelekuan: 17:30 a 18:45

2018/2019 ikasturtea:

2018ko azaroaren 5etik abenduaren 20ra bitartean garatu da. Data hauetan hiru talde osatu dira Eibar BHI Isasi ikastetxean eta talde 1 Gaztelekuan (Aldatzeko ikasleak).

Ordutegia:

Eibar BHI Isasi :15:00etatik 16:15etara.

Indianokua Gaztelekuan: 17:30 a 18:45

GASTUA: 12.414 €

BALORAZIOA:

2017/2018 ikasturtea: Urtarriletik maiatzera bitartean 2 talde egon dira Gaztelekuan eta beste bi talde Eibar BHI Isasi ikastetxean. Gaztelekuko taldeetan 9 lagun ibili dira eta Eibar BHIko taldeetan 31. Gaztelekuko taldeak txikiak izan dira, baina asistentzia eta jarrera ona izan dute. Eibar BHIko taldeetan ikasleen erdiak asistentzia eta jarrera egokia izan dute. Beste erdiaren asistentzia eta jarrera eskasak izan dira. Ikasle bat jarrera desegokiagatik egitasmotik kanporatua izan da.

2018/2019 ikasturtea: Urritik abendura bitartean 5 talde jarri dira martxan: 3 Eibar BHI Isasin eta 2 gaztelekuan.

Hauspoa programa: 35 ikasle ibili dira 3 taldeetan banatuta. Bi talde maila ertainekoak dira eta bat oinarrizko mailakoa. Horietatik 20k asistentzia eta jarrera ona izan dute. Guztiak DBHko 1 eta 2 mailako ikasleak dira.

Gaztelekua: 9 ikasleko taldea osatu da. Hasiera batean euskara maila kontuan hartuta bi azpitalde egitea pentsatu zen, baina euren jarrera ikusita erabaki da denak elkarrekin egotea talde bakarrean. Ikasle guztiak Aldatze ikastetxeko DBH 1 eta 2 mailakoak dira.

**IZENBURUA: LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEKIN
LANKIDETZA BILERAK**

DESKRIBAPENA: 2018an hasi da Eibarko Udala Lanbide Heziketako ikastetxeekin (Armeria Eskola eta UNI) eta ...eta kitto! Euskara elkartearen erabilera lankide delarik bilerak egiten elkarrekin Lanbide heziketan euskararen erabilera sustatzeko. Lankide mahaia Lanbide Heziketako ikastetxeen eskaerari erantzuteko antolatu da.

DATAK:

2018/04/09

2018/05/28

2018/09/17

ASISTENTZIA

Denok

Denok

Denok

GASTUA: 0 €

BALORAZIOA: Baliagarria izan da Lanbide Heziketako zentroekin bilera bereiztuak egitea. Euren asistentzia eta inplikazioa oso ona izan da. Aukera izan dugu zentro horietarako ekintza espezifikoak diseinatzeko. Armeria Eskolarako A eredu ikasleentzako motibazio saioak egin dira. UNIn ordezkari aldaketa egon da eta irailean pixka bat galduta egon dira.

IZENBURUA: TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH1

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da. Tailerra ordu eta erdiko bi saioak osatzen dute.



EPEA:

Urritik abendura bitartean egin dira saioak.

GASTUA: 1.960,20 €

BALORAZIOA:

364 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Guztira 13 taldetan eman dira saioak. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da. Balorazio guztiak taldeka [HEMEN](#) daude.

IZENBURUA: TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH3

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBH 3ko interesa duten ikasleei, euskara batzordekoak direlako edo besterik gabe, motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskola orduetan izaten da, Portalean. Udalak finantzatzen du. eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da.



EPEA: 2018ko urtarrilaren 24a eta 31

GASTUA: 254 €

BALORAZIOA: Guztira 24 ikaslek hartu dute parte. Itzioko 6 ikasle, Mogelesko 8 ikasle, La Salleko 4 ikasle eta Aldatzeko 6 ikaslek hartu dute parte. Orohar partehartzaileek egin duten balorazioa ona izan da. Gainera ikasle horiek euren ikaskideen artean azaltzen dute tailerretan landutakoa.

[BALORAZIO OSOA](#)

IZENBURUA: ZERGATIK EZ MOTIBAZIO SAIOAK BATXILERGOA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Batxi 1eko ikasleei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskola orduetatik kanpo izaten da, Portalean. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzea eta partaideen hizkuntzaren aldeko jarrera indartzea. Saio hauek Elgoibarko Izarra euskara elkartekoek ematen dituzte.



EPEA: 2018ko urtarrilaren 26a eta otsailaren 2a

GASTUA: 453,75 €

BALORAZIOA: La Salle eta Aldatzeko ikasleek hartu dute parte. Guztira 13 ikaslek hartu dute parte. Aldatzeko 10 eta La Salleko 1 eta Instituoko 2. Balorazioa oso ona izan da. Kontuan izan behar da parte hartu duten ikasle gehienen etxeko hizkuntza gaztelania dela eta lagunartean ez dutela euskararik erabiltzen ia inoiz. [BALORAZIO OSOA](#).

IZENBURUA: BULARRETIK MINTZORA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta familiekin lankidetzan *BULARRETIK MINTZORA* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan Euskara arloa, udal liburutegia, ikastetxeak eta familiak izango dira partaide. Euskara arlotik egitasmoaren zabalkundea egingo da ikastetxeetan eta gurasoen formazio kostua ordainduko da.



Probatu duten herrietan:

Gurasoek liburutegira joateko ohitura hartzen dute, mailegua gehiago erabiltzen dute, haurrek arretari eusteko duten jantxanua hobetzen dute eta haur eta gurasoen arteko komunikazio afektiboa areagotzen da



Bularretik Mintzora

2017. urteaz geroztik, Euskal Herriko haur eskolara abiarazi da.

23 herri
473 irakurle
31 ikastetxe
7.500 haur baino gehiago
175 liburu maileta
3.881 gurasoren galdetza
1.580 itxapide eta buletineri

www.bularretikmintzora.org
getintza@getintza.org
bularretikmintzora@getintza.org
943244840



Euskal Herriko Liburutegia
haur, 0-2 urteko irakurle
gurasoak jaso gabeko

*Liburuak,
ikastaroak,
lanegiak,
jardumaldiak,
aholkua, ereduak,
klubak, errezeta
literarioak, kartelak,
mozilak, mailetak,
galdetegiak,
ebaluzioa,
buletinak...*



EPEA: 2017-2018 ikasturtea.

GASTUA: 3.380,00 €

BALORAZIOA: HH eta LHko ikastetxe guztiek hartu dute parte Urkizuk izan ezik. Aurrerago gaia aztertzekotan geratu dira. San Andres ikastetxea ikasturte bat lehenago abiatu zen bere kontura. Momentu honetan 6 ikastetxe daude egitasmoaren barruan. 12 formazio saio jaso dituzte ikasturtean programaren barruan zeuden irakasleek.

IZENBURUA: BAGABIGAHIGA EMANALDIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak antolatzen du DBH 4ko ikasleei musika emanaldia Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen eskutik. Eskola orduetan izaten da, Coliseoan. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskal musika ezagutzea, zaletasuna sortzea eta euskal erreferenteak sortzea.



EPEA: 2018ko maiatzaren 14a

GASTUA: 484,00 €

BALORAZIOA: DBHko ikastetxe guztiek hartu zuten parte. Guztira 260 ikaslek hartu dute parte. Balorazioa oso positiboa izan da, nahiz eta ikasle gutxi batzuen jarrera ez den egokiena izan, batez ere emanaldiaren hasieran.

IZENBURUA: MINTZODROMOA LANBIDE HEZIKETA

DESKRIBAPENA: Lanbide Hezketan ikasle gehienak A ereduan matrikulatzen direlako kezkatuta, Lanbide Hezketako agente desberdinekin gaia aztertu eta joera hori aldatzeko klabeak bilatzeko mintzodromoa egin da. Armeria Eskola, UNI Eibar Ermua ...Eta Kitto eta Eibarko Udalak lankidetzan bideratu da.



EPEA: 2018ko maiatzaren 9a, 10:00, Untzaga

GASTUA: Zeharkako kostoak

BALORAZIOA: Armeria Eskola, UNI Eibar Ermua ikastetxeetako ikasle eta irakasleek, Eta Kittoko eta AKEBAiko dinamizatzaileek eta DBH eta Batxilergoko ikastetxeetako orientatzaileek hartu zuten parte nagusiki. Eibarko enpresa batzuetako ordezkariak ere egon ziren. Udaleko zinegotzi batzuek. Guztira 30 lagun inguru bildu ziren mahaien inguruan eta gireo onean gaiak landu ziren. Gaien ondorioak jaso ziren eta horrekin Lanbide Hezketan D eredua sustatzeko ekintza plantxo bat diseinatu da. [EMAITZAK](#)

IZENBURUA: BERTSOLARITZA MOTIBAZIO TAILERRA DBH 1

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBHeko ikasleei Bertsolaritza motibazio tailerra eskaintzen die Hankamotxak Bertso eskolaren bidez. Helburua DBHn eskola orduz kanpo Bertso Eskolan parte hartzera motibatzea da. LH Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoak jarraipena izan dezan. Udalak finantzatua.



EPEA: 2018ko azaroaren 28an eta 29an eta abenduaren 13an

GASTUA: 1.475,96 €

BALORAZIOA: Ikastetxe guztiek hartu dute parte eta DBH 1 mailako 8 taldetan eman dira bertsolaritzara motibatzeko tailerrak. Balorazioak oso onak izan dira, eta emaitzak ere bai neurri batean. Saio hauen ondoren lortu da Eibar BHIn eskola orduz kanpo bertsolaritza lantzeko talde bat osatzea. Beste ikastetxeetakoak ere oso gustora aritu dira, baina ez da talderik osatu. Beste ikastetxeetako pare bat ikasle soltek Eibar BHIn taldean lantzen dute bertsolaritza. [BALORAZIO OSOA](#)

IZENBURUA: MOTIBAZIO SAIOAK LANBIDE HEZIKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Lanbide Heziketako A ereduko ikastaldeei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du. Helburua da euskara ikastera animatzea.



Hitzaldi soziolinguistikoa

Txikitasunean HAUNDI?

... eta kitto! Euskara Elkarteak ERABIERA sustatzeko amoz bi motibazio/sensibilizazio hitzaldi eskaintzen dituzue. Euskara XXI. Mendean bizi irautea lortu du, gure esku dago XXI. Mendean arte ere bizi irautea. Zer egin ordea hortaz oharatzeko eta erabilera sustatzeko? "XXI. Mendea gure esku" hitzaldiarekin horixe da hain zuzen ere bilatzen duguna, gazteok edota helduak sensibilizatu eta jarrera aktiboak sortzea. Bi formato eskaintzen ditugu, baina hitzaldi formatuan eta bestea taller formatuan.

Euskaldun izan edo ez izan, helduak euskararekiko erakusten dugun jarrera eragin zuzena dugun gure seme/alaba, ikasle eta erakundearen urteko jokabidean, jarrerak aldatzea posible al da? Jarrerak aldatuz gero gure jokabidea aldatuko genuke?

Uneak dituztenentzat edota uneekin lan egiten dituztenentzat pertsona da "Euskararekiko JARRERAK eta MOTIBAZIOAK" hitzaldia eta euskaraz zein gaztearekin eskaintzen dugu.

Honemaretarako: Aitor Labada Alzola (943 20 09 18 / normalizazioa@elkitto.com)

XXII. mendea GURE ESKU

- Zenbat hizkuntza daude munduan?
- Zergatik desagertzen dira hizkuntzak?

Hitzaldia
12:00an hasiko da
13:00an 75 minutu
30 lagun gehienez 200

Tallerra
14:00an 90 minutu
15:30an 75 minutu
25 lagun gehienez 200

Euskararekiko JARRERA eta MOTIBAZIOAK

- Jarrerak erantzun ikasle dute.
- Posible al da jarrerak aldatzea?

Hitzaldia
14:00an 90 minutu edota 150 uneko ikasleekin
15:00an 75 minutu
25 lagun gehienez 200

EPEA: 2018ko abendua

GASTUA: 1.524,60 €

BALORAZIOA: Lanbide Heziketako Armeria Eskolako 9 taldek jaso dute, lehen mailan A ereduan dauden talde guztiak dira. Balorazioa orohar ona izan da. Saio hauen ondorioz euskara ikasteko taldeetan parte hartzera 20 lagun animatu dira. Azkenean ordutegi kontuak direla-eta 9 laguneko taldea jarri da martxan eskola orduz kanpo arratsaldeetan. [BALORAZIO OSOA](#)

IZENBURUA: BARNETEGIA DBH 2

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBHko Eibar BHI ikastetxearekin lankidetzan bertako DBH2ko ikasleentzako hizkuntza barnetegia antolatu du. Eskola mapa berriaren arabera antolatu dira ikastetxe publikoak, eta horrek eragindako egoera berrietara hobeto egokitzeko helburua du barnetegiak (talde izaera, zentro desberdinetatik etorritako ikasleen arteko bizikidetza aberatsagoa izatea. Baina bereziki helburua hizkuntza ohituretan eragitea da, jabeakuntza eta ahalduntze-prozesu baten bidez.



EPEA: 2018ko azaroaren 26tik 29ra

GASTUA: 5.500,00 €

BALORAZIOA: DBH2ko bi talde egon dira eta ikastetxeak eta barnetegiko begiraleek egindako balorazioa ona izan da. Baina euskararen erabilerari dagokionean 3 puntuko emaitza (onargarria) jarri zaie 5etik.

IZENBURUA: GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2017-2018

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 60 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa. Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.



EPEA: 2017ko urritik 2018ko maiatzera

GASTUA: Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

BALORAZIOA:

Kanpaina hau egiten den bigarren ikasturtea da eta 55 gurasok eman dute izena eta 5 talde osatu dira: Amañan talde 1, San Andresen talde 1, Urkizun talde 1 eta La Sallen 2 talde.

Ikasturte honetan talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako gurasoak egon dira, eta taldea aukeratzeko erabili den irizpidea, eguna, ordutegia, maila eta gertutasuna izan dira.

Aldatzeko, Arrateko Andra Mariko eta Mogealeko gurasoek antolatu diren taldeetan hartu dute parte.

Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

IZENBURUA: EUSKALTEGIEN LEHIAKETA: e-BERBA LEHIAKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak euskaltegi biek in lankidetzan BERBA lehiaketa antolatzen du: politena, itsusia, eibartarra... hautatzeko lehiaketa izaten da. Sari bat epaimahaiak emandakoa eta bestea webean boto gehien jaso dituenarentzat izaten da. Lehiaketa irekia izaten da eta edonork har dezake parte.

e-berba lehiaketa

Mundu digitalean hain erabiliak diren berbak euskaratzen
Nola esango zenuke euskaraz ...?

PARTE HARTZEKO

Asmatu ondorengo zerrendako berba baten edo gehiagoren euskarazko pareko egokia (twit-txio):

Influencer	Trending topic
Youtuber	Selfie
Meme	Postureo
Spoiler	Hater
DIY (do it yourself)	Fake

eta eraman JSM liburutegira edo bidali helbide haue-
tako batera:
eibar@eak.eus euskaltegia@eibar.eus euskara@eibar.eus

Azken eguna OTSAILAREN 25a

SARIAK

Coliseorako eta Armagintza Museorako
sarrerak eta argitalpenak

Antolatzaileak: Udala / Eibarko AER / Udak Euskaltegia

EPEA: 2018ko otsaila-martxoa

GASTUA: Coliseorako eta Armagintza museorako 4 sarrera.

BALORAZIOA: 38 lagunek hartu dute parte eta 200 argazki aurkeztu dituzte. Epaimahaiaren saria PLANTITXURA (postureo) berbak jaso du eta herritarrena GORROTER (hater) berbak

IZENBURUA: FILMAZPIT

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak euskaltegiekin lankidetzan Filmazpit egitasmoa burutzen du. Filmazpit egitasmoak euskaraz azp titulaturako filmak emateko aukera eskaintzen du. Filmak doan ematen dira Portaleko Areto Nagusian euskaltegiaren ordutegian eta iluntzean. Sarrera irekia da.



DATAK: 2018/02/22 HASIBERRIA
2018/04/25 KEEPER

GASTUA: Areto Nagusiaren erabilera.

BALORAZIOA: 2 filma eman dira 2018an eta guztira 78 ikusle inguru izan dira.

IZENBURUA: SENTSIBILIZAZIO SAIOAK AISIALDI ETA KIROLETAKO BEGIRALEENTZAT

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Euskara Sailaren bitartez ikasturte hasieran sentsibilizazio saio desberdinak eskaintzen dizkie aisialdiko begiraleei, Multikiroletako begiraleei, Musika Eskolako irakasleei eta Kirol Patronatuko langileei.



DATAK: 2018/11/16

GASTUA: 400 €

BALORAZIOA: Guztira kiroletako 5 hezitzailek eta aisialdiko 8 hezitzailek egin dute tailerra. Kiroletakoakdenak gizonezkoak eta aisaldikoak 7 emakumezko eta gizonezko 1. Saioa bakarra jaso dute iazkoarenjarraipena izan delako eta begirale guztiak iaz ibilitakoak zirelako.

Koordinatzaileekin on-line egingo da planaren martxarenjarraipena.

IZENBURUA: MULTIKIROLAK 2017 2018

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta Kirol Patronatoarekin lankidetzan Multikirolak egitasmoa bideratzen du. Euskara zerbitzutik egitasmoa burutzeko kirol monitoreen enpresa baten kontratazioan parte hartzen da, kirol jarduerak euskaraz izan daitezen eta begiraleek euskararen erabileraren neurketa egin eta erabilera sustatu dezaten umeen artean eta baita partidetan kirol klubetatik datozen epaile eta adituen artean.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

GASTUA: 3.993 €

BALORAZIOA: Ikastetxe guztietako umeek hartu dute parte. Umeen % 51 hartzen du parte egitasmoan. 252 benjaminek hartu dute parte, 68 neska. 270 alebinak izan dira eta horietatik 83 neskak.

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, talde harreman hizkuntza euskara dute umeen % 59k eta monitorearekin euskaraz egiten dutenak % 79 izan dira. Ikastetxeen arabera alde handiak daude, bai partaidetzan, bai euskararen erabileran.

[Ikusi taula.](#)

	KOPURUA	THHE		MHHE	
2016-2017	442	259	59%	349	79%
2015-2016	377	171	45%	297	79%
2014-2015	456	258	57%	320	70%
2013-2014					
2012-2013					
2011-2012	511	206	40%	350	68%
2010-2011	459	278	61%	314	68%
2009-2010	350	122	35%	267	76%
2008-2009	523	169	32%	322	62%
2007-2008	496	227	46%	404	81%
2006-2007	372	162	44%	255	69%

Horretaz gain Eskola kiroltako partidetan klubek ere parte hartzen dute eta euskararen erabileraren neurketa egiten da. Ikusi hemen [TXOSTEN OSOA](#)

IZENBURUA: TRANSMISIO MINTEGIA

DESKRIBAPENA: ...Eta Kitto! Euskara elkarteak antolatzen du udalaren babesarekin. Goiz osoko mintegia euskararen transmisioari buruzko hizlariekin eta mahai inguruarekin Euskal Herri osoko euskara teknikari, irakasle, aisialdiko begiraleei zuzendua.




DATAK: 2018ko martxoaren 8an, asteartea 8:45-14:30

GASTUA: 1.000 €

BALORAZIOA: Goiz osoko egitarauan 6 hizlari egon dira eta amaieran mahaingurua egin da.

IZENBURUA: EIBARKO EUSKARA .EUS

DESKRIBAPENA: Euskara zerbitzuak KAM enpresaren bidez www.eibarko-euskara.eus web gunea kudeatzen du. Bertan Eibarko euskara hiztegia, argitalpenak eta Eibarko euskararen lotura duten egitasmoak daude jasota.



GASTUA: 745 €

BALORAZIOA: 28.059 bisita izan ditu eta 11.237 erabiltzaile. Momentu honetan gune hau gehien bat Eibarko Euskara Hiztegia on line mantentzeko da. Aztertu egin beharko genuke merezi ote duen gune bat horretarako edukitzea.

IZENBURUA: HITZALDIA: ITZALITAKO KALABAZEN BERPIZTEA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan 2015ean kaleratutako Juan San Martin bekaren irabazleen lanaren aurkezpen hitzaldia izango da. Bekaren oinarrietan jasota dago lana aurkezteko hitzaldia egin behar dutela. Bertan irabazleak eta epaimahaikideak izango dira.

ITZALITAKO KALABAZEN BERPIZTEA HITZALDIA



HIZLARIAK:

Josu Ozaita eta Jaime Altuna

Arimen Gausa, Halloween eta Gau Beltzaren haur ospakizunen ikerketaren aurkezpena

2015eko Juan San Martin bekaren irabazle izan ziren eta hitzaldian egindako lanaren aurkezpena egingo dute.

URRIAK 17, asteartea, 18:30

EPEA: 2017ko urriaren 17a

GASTUA: Bekak barne hartzen du.

BALORAZIOA: Gaiak herritarren artean interesa piztu du, bereziki kultur elkarte desberdinetako partaideen artean eta ikastetxeetako irakasleen artean. 2018an lana argitaratzeko asmoa dago. Guztira areto nagusian 60 lagun inguru elkartu ziren.

IZENBURUA: UEU DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion diru laguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da.

Diru-laguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2017/09/01 eta 2018/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.

The screenshot shows the website of Eibarko Udala. The main heading is "Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eskaintzen dituen ikastaroetarako diru-laguntzak (2018)". Below the heading, there is a "Deskribapena" (Description) section stating that the grant is for students starting courses in 2018, with a 50% discount on tuition fees. It also lists "Hartzailerak" (Applicants) as students starting courses in 2018. A list of eligible courses is provided, including "UEUk Eibartik kanpo ematen dituen Udako ikastaroak" and "UEUk Markeskoa ikastetxe nagusian eskaintako ikastaroak". The "Eskiera egiteko epea" (Application period) is from September 28, 2018, to February 28, 2019. The "Diru-laguntzaren zenbatekoa" (Amount of the grant) is 50% of the tuition fee. The "Aurkeztu beharreko dokumentazioa" (Required documentation) is also mentioned.


ESKAERA EGITEKO EPEA : 2018/09/28

GASTUA: 175,00 €

BALORAZIOA: 2 esкера egon dira eta baldintza guztiak betetzen zituztenez, denak eman dira ontzat.

IZENBURUA: EUSKARA DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin diru-laguntza izendunak ditu. Diru-laguntza bi zatitan ordaintzen da, %60 hitzarmena sinatzen denean eta %40 zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.



Eibarko AEK

24.900€

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.

Eta Kitto Astekaria

60.041€

Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea

Eta Kitto Berbetan

50.908€-

Berbetan egitasmoa burutzea

Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.

[Eta kitto Txikitto](#)

13.500€

Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea

[Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak](#) 5.000€

Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.

[Badihardugu](#)

1.386€

Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea

[Deba Beheko bertso eskola](#)

1.735€

Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoek artean bertsozaletasuna handitzea.

EPEA : 2018

GASTUA: 157.470 €

BALORAZIOA: Elkarrekin egindako gastuen zuriak aurkeztu dute eta ontzat eman da.

IZENBURUA: AKEKIDEEN ERREGISTROA

DESKRIBAPENA: AKEBAI Batzarra osatzen duten kideek fitxa bat bete behar dute erregistratuta geratzeko eta Akekide izaera edukitzeko. Sinatutako fitxak jaso eta dagokion karpetan gordetzen dira alfabetikoki ordenatuta. Datuak eskuragarri izateko eta nahi den filtroaren arabera sailkatzeko, Akekideen zerrenda Excel taula batean jasotzen da. Fitxako dataren arabera, zenbaki bat izango du Akekide bakoitzak.



 AKEBAI

AKEKIDE

EIBARKO HIRIA EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOarekin bat egiten dut, eta AKEBAI Batzarreko kide izateak dakartzan egitekoak eta betebeharrak onartzen ditut.

NORBANAKDA

ORDEZKARIA: Ordezkatzen dudun talde/eikarte/erakundea:

Kontrakturako datuak:

Izen-abizenak: _____

NAN: _____

Jaiotze data: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

Emaila: _____

Akekide izateaz gain, parte hartu nahi dut:

EKITALDIAK mahaian	<input type="checkbox"/>	KULTURA mahaian	<input type="checkbox"/>
KIROLO mahaian	<input type="checkbox"/>	TRANSMISIO mahaian	<input type="checkbox"/>
KOMUNIKAZIO mahaian	<input type="checkbox"/>	BESTERIK	<input type="checkbox"/>

Data: _____

Sinadura

EPEA: 2018.urtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

2018aren bukaeran, guztira, 163 Akekide fitxa daude jasota.

IZENBURUA: AKEKIDEEN BATZARRA

DESKRIBAPENA: AKEBAI Batzarra Akekideek osatzen dute eta plataformaren erabaki-gune nagusia da. Ekipoak deituko du, gutxienez urtean birritan. AKEBAI Batzarraren egitekoak zehaztuta daude [araudian](#).



DATA: 2018ko apirilaren 17a eta 2018ko azaroaren 13a

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Bi batzar egin dira.

Urteko lehen batzarrean 55 kide bertaratu dira, eta 9 boto delegatu jaso dira.

2017ko jarduna eta 2018ko plana eta aurrekontua onartu dira, eta izena aldatzeko prozesurik martxan ez jartzea erabaki da.

Urteko bigarren batzarrean 30 Akekide bertaratu dira.

2018an zehar AKEBAIk ume eta gaztetxoek aktibaziorako eta inguruko eragileak aktibatu eta saretzeko martxan jarri dituen ekintza eta egitasmoen berri eman da, eta Euskaraldiaren eta Euskararen Egunaren inguruko informazioa zehaztu da.

IZENBURUA: EKIPOA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den *Eibarren* AKEBAI plataformak duen egituraren geruzetako bat da. (BATZARRA eta MAHAIAK dira besteak). Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin aldatu (mahaietako kideak eta euskaltegietako ordezkaria) Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, urteko kudeaketa planaz arduratzen da. Dagozkion egitekoak [araudian](#) daude zehaztuta. Gutxienez, hilean behin batzartuko da, eta gutxienez urtean birritan deituko du Akekideen Batzarra.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Hainbat zeregin heldu dio Ekipoak urtean zehar: mahaien funtzionamendua gainbegiratu; urteko aurrekontua eta plana egin eta gainbegiratu; Batzarrak deitu; AKEBAIra iritsi diren proiektuak baloratu; diskurtsoak berritzeko eta parte-hartze zabalagoa lortzeko "Hamaika berbaldi" ekimena antolatu; hizkuntza irizpideak zehaztu; Euskaraldia antolatzen parte hartu ...

Partaideak izan dira:

Udaleko euskara teknikaria, ...eta Kitto! Euskara Elkarteko normalizatzailea, AEK euskaltegiko ordezkaria; Udaleko Euskara Batzordeko 2 zinegotzi (bakoitza 6 hilabetez), Komunikazio mahaiko 2 kide (txandaka), Transmisio mahaiko kide bat, Kultura mahaiko kide bat, Ekitaldiak mahaiko kide bat eta koordinatzailea.

Ekitaldietako kideak utzi egin zuen Ekipoa, arazo pertsonalengatik, eta handik aurrera 8 kide izan ditu Ekipoak.

Transmisio mahaiko kideak ere, lanagatik, Ekipoa utzi egingo zuela adierazi zuen, eta 2019an ez zela bertako kide izango.

19 bilera egin dira urtean zehar: [18/01/19](#), [18/01/22](#), [18/02/05](#), [18/02/26](#),
[18/03/12](#), [18/03/26](#), [18/04/09](#), [18/04/23](#),
[18/05/07](#), [18/05/28](#), [18/06/18](#), [18/07/09](#),
[18/09/03](#), [18/09/24](#), [18/10/08](#), [18/10/29](#),
[18/11/05](#), [18/11/26](#), eta [18/12/17](#)

Asistentzia: % 85,5koa izan da

IZENBURUA: EKITALDIAK MAHAIA

DESKRIBAPENA: *Eibarren AKEBAI* plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Ekitaldi jendetsuak antolatu behar direnean, Ekitaldiak mahaia Eibarko 4 guneen (Erdigunea, Behealdea, Urki-lpurua eta Amaña-Legarre) aktibazioaz arduratzen da, herritarrek informazioa izan dezaten eta parte har dezaten ekitaldian.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Urtean zehar Euskaraldiari buruzko informazioa zabaltzeaz (4 guneetako informazio bilerak) eta herritarren kaleko izen-emateaz (informazio mahaia) arduratu da Euskaraldia batzordearekin elkarlanean. Euskararen Egunerako (bezperarako) Bazkarialdiko informazioa zabaltzen eta tiketent salmentan ere lagundu du.

Partaideak izan dira: 3 kide boluntario eta AKEBAIko koordinatzailea. Mahaiko kideez gain, gune bakoitzean bi arduradun daude, eta gune bakoitzeko arduradunek lantalde bana dute. Sare ba da.

Sei aldiz bildu da mahaia: [18/02/23](#), [18/05/07](#), [18/07/05](#), [18/07/17](#), [18/09/12](#) eta [18/12/11](#)

IZENBURUA: KIROL MAHAIA

DESKRIBAPENA: *Eibarren* AKEBAI plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Bost aldiz bildu da mahaia urtean zehar: [18/01/08](#), [18/01/29](#), [18/02/05](#), [19/03/05](#) eta [18/04/23](#)

[18/02/19](#) kirol elkarteekin harremanetan jartzeko bilera zuten eta 13 talde edo elkarte egon ziren bertan. Bilera honen helburua zen AKEBAIren aurkezpena egitea eta kirol taldeak saretzea.

IZENBURUA: KOMUNIKAZIO MAHAIA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den ***Eibarren AKEBAI*** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekiptoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.



EPEA: 2018

GASTUA: webgunearen aldaketak eta mantentze lanak : 1.413 €

BALORAZIOA: Hainbat zeregini heldu zaio urtean zehar: izenaren inguruan sortutako auziaren ondorioz marka diagnosis egiteko galdeketa prestatu, zabaldu eta jasotako datuen hustuketa egin ondoren, Akekideen batzarrean azaldu; webgunean Euskaraldirako egin beharreko egokitzapenak zehaztu; hainbat ekimenen zabalkundea egin (berbaldiak, Euskaraldia, Euskararen agenda)...

Mahai honen zeregina oraindik ez dago zehaztuta; izan ere, plan estrategikoan ere ez zegoen aurreikusita Komunikazioa mahaia, eta bertako kideek estrategia baten beharra ikusten dute. Helburuak markatu, eta horien arabera ekintzak planifikatu beharko lirateke.

Bost bilera egin dira urtean zehar: [2018/01/09](#), [2018/01/16](#), [2018/02/06](#), [2018/05/28](#), eta [2018/09/10](#)

IZENBURUA: KULTURA MAHAIA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den **Eibarren AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Mahai hau urtean zehar, hilez hile, Euskararen agenda osatzeaz eta zabaltzeaz arduratu da. Zabalkunde horretan, jendearengana hobeto iristeko Telegram kanala zabalduta da: Eibarren euskaraz.



Kultur eragileak sartzeko ahaleginean hainbat elkartetako ordezkariarekin eta Udaleko Kulturako zuzendariarekin egin da harremana elkarlana bultzatzeko. Era berean, jaiak euskaldunago izateko helburuarekin hainbat jai batzorderekin egin da harremana, AKEBAIren berri emateko eta elkarlana bultzatzeko.

Bederatzi bilera egin dira urtean zehar: 18/01/10, 18/01/23, 18/03/05, 18/04/09, 18/05/07, 18/06/18, 18/09/24, 18/10/08 eta 18/11/27

IZENBURUA: TRANSMISIO MAHAIA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den **Eibarren AKEBAI** plataformak duen egituraren geruzetako bat MAHAIEK osatzen dute. BATZARRA eta EKIPOA dira besteak.

Mahaiek egunerokoan ekimenak proposatu eta garatu egingo dituzte, AKEBAI Batzarrak eta Ekipoak landutako helburuak lortzeko. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, urtean 5 bilera egingo ditu mahai bakoitzak, baina dinamiken arabera, maiztasuna egokitu egingo da.



EPEA: 2018

GASTUA: Barne baliabideak

Jira bueltan saioak eta materiala: 2.902 €

BALORAZIOA: Hainbat zeregini heldu dio mahai honek urtean zehar, ikastetxeen mahaiarekin eta guraso elkarteekin elkarlanean arituta: euskararen erabilera aztertu ikastetxeen eremuan, familien hizkuntza egoeraren diagnostika egiteko galdetegiak prestatu eta ikasleei pasatu, ikastetxeetako gune informaletan euskararen erabilera sustatzeko Jira bueltan materialeko kantak eta jolasak praktikatzeko saioak antolatu jangelako hezitzaile eta umeekin... Familien hizkuntza egoeraren diagnostika egiteko galdetegia prestatu da, eta LH2, LH5 eta DBH2ko ikasleek bete dute, gelan, irakasleen laguntzaz. Guztira 807 galdetegi jaso dira. Bestalde HH2ko ikasleek familien hizkuntza egoerari buruz 7 ikastetxeetako bakoitzak duen informazioa ere bildu da.



Jira bueltan saioak LH1 eta LH2ko ikasleekin egin dira, bazkalostean, jangelako hezitzaileekin batera, 7 ikastetxeetan. Guztira 64 saio izan dira, 45 minutukoak, eta talde bakoitzak (15 ikasle ingurukoak) bi saio jaso ditu.

Bederatzi bilera egin dira urtean zehar: 18/01/11, 18/01/30, 18/03/01, 18/04/12, 18/05/17, 18/06/14, 18/07/12, 18/10/04 eta 18/11/08)

BALORAZIOA: Ekipoko eta beste mahaietako kideek osatu dute taldea. Guztira 9 lagun aritu dira batzorde honetan lanean, Ekipoarekin eta Ekitaldiak eta Komunikazio mahaiarekin elkarlanean.

Batzorde honek hartu du bere gain egitasmoa Eibarren aurrera eramateko ardura: girotze faseko 11 bideoen prozesua antolatu (Casting-a, Miren & Malen), informazioa zabaltzeko material grafikoa sortu (kartelak, diptikoak, izen-emate orriak, buzoietako orriak, pegatinak...), beharrezko euskarriak lortu (panpinak, letrak, pankartak, roll ap-ak, txapak...), Euskaraldiaren aurkezpen publikoa egin, Eibarko hamaikakoa osatu eta aurkeztu, Debabarreneko batzordeen agerraldian parte hartu, herritarrentzako informazio bilerak bideratu, hainbat elkarteri formazio/informazioa eman, izen-ematea kudeatu, atxikimendua adierazteko argazkiak jasotzeaz arduratu, txapen banaketa antolatu...

Lan horiek antolatzeko Euskaraldia batzordea 13 aldiz bildu da:
17/12/28, 18/01/15, 18/02/12, 18/02/26, 18/03/14, 18/03/26, 18/04/10, 18/05/02,
18/05/14, 18/06/04, 18/06/13, 18/09/25 eta 18/12/13

Baina bilera horiez gain bertako kide batzuk Topaguneak Gipuzkoako batzordeekin antolatutako bileretara ere joan dira; 6 aldiz bildu dira Gipuzkoako batzordeak eta gure batzordeko kideren bat izan da horietako lautan.

IZENBURUA: EUSKARALDIA (11 euskaraz)

DESKRIBAPENA: Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak abiatutako ekimen hau Euskal Herri osoan gauzatu da. Eibarren AKEBAIk hartu du bere gain horren antolaketa, eta horretarako Euskaraldia batzordea sortu da AKEBAIko kidez osatua. egitasmoa herritarren artean zabaldu eta parte har dezaten animatuz arduratu da.

Herritar euskaltzaleak aktibatuta, **hizkuntza-ohiturak aldatzea** da dinamikaren helburua. Euskaltzaleak aktibatu nahi dira beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten.

Hamaika egun horietan, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 16 urtetik gorako herritarrak **ahobizi** eta **belarriprest** bihurtzea nahi da.

Ahobiziek, ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egingo diete eta ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diete. **Belarriprestak**, berriz, gutxienez euskaraz ulertzen duten kideak dira, eta gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen diete. Parte hartzeko izen-ematea zabalduko da, eta identifikaziorako txapa baliatuko dute guztiek.



EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ

Badator, badator...!
Eta Eibarren, zer egingo dugu?

INFORMAZIO BILERAK:

IRAILAK 17	19:00	...ETA KITTÓ!
IRAILAK 18	19:00	ARBERIA ESKOLA
IRAILAK 19	19:00	USALETREA
IRAILAK 20	19:00	PORTALEA

Etorri, etorri!

AKEBAI



DATA: 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

GASTUA: Barne baliabideak

Zabalkundea eta materiala: 18.258 €

BALORAZIOA: Euskaraldian parte hartzeko, **3.825** herritarrek eman dute izena Eibarren: 2.436 ahobizi (% 63, 68), 944 belarriprest (% 24,67) eta 445 bihotzgoxo (%11,63). Genero aldetik: 2.300 emakumezko (% 60), 1.499 gizonezko (% 39) eta 26 (% 0,7) ez binario.

Euskaraldiak Eibarren izan du berezitasun bat: hirugarren rola, *bihotzgoxo*. euskara ulertu ez arren ingurukoek euskaraz egitea gustuko dutenena. Rol honek harrera ona izan du herrian, eta kanpotik ere eskatu dute *bihotzgoxo* txapa.


Euskaldunok ahalduntzeko ariketa soziala 11 egunez (azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean) egin bada ere, Euskaraldiak aurretik ere izan du presentzia Eibarren hainbat ekitaldi eta agerralditan:

- Kike Amonarrizen berbaldia: *“Euskara bidegurutzean, baita Eibarren ere”* 2017ko abenduaren 19an, udaletxean
- Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia: maiatzaren 19an, Untzagan
- Hamaikakoaren agerraldia/argazkia: ekainaren 26an, Untzagan
- Debabarreneko batzordeen agerraldia/argazkia: ekainaren 27an, Deban
- *“Miren & Malen”* 11 bideoen zabalkundea: irailaren 17tik 27ra bitartean
- Lutxo Egiaren berbaldia: *“Bilbon 30 egun euskaraz. Eibarren, zer?”*: irailaren 26an, Indianokua Gaztelekuan
- Informazio bilerak:
 - irailaren 17an, ...eta kitto!-n
 - irailaren 18an, Armeria Eskolan
 - irailaren 19an, udaletxean
 - irailaren 20an, Portalean
- Informazioa mahaiak kalean, lau guneeetan: Erdigunea / Urki-Ipurua / Amaña-Legarre / Behealdea, urriaren 18tik azaroaren 16ra bitartean.
- Eibar KEaren derbyetako agerraldiak: Eibar-Athletic, urriaren 20an; eta Eibar-Alaves, azaroaren 4an
- Izen-ematea: on-line zein izen-emate orrietan, irailaren 20tik azaroaren 28ra bitartean
- Txapa banaketa: azaroaren 16tik aurrera. Euskara zerbitzuan, ...eta kitto!-n, Udal euskaltegia eta AEK euskaltegia
- Euskararen eguna:
 - abenduaren 2an: Bazkarialdia, Untzagako karpan
 - abenduaren 3an: Horma irudia “Hau hasiera besterik ez da” leloarekin, eta jendeak izandako bizipenen irakurraldia
- Zabalkunde orokorraz gain, Eibarko hedabideetan ere Euskaraldiaren inguruko informazioa etengabea izan da.

IZENBURUA: HAMAIKA BERBALDI

DESKRIBAPENA: 2017ko abenduan hasi eta 2018ko abendua bitartean 11 hitzaldi, tertulia edota mahainguru egingo dira. Helburuak:

- Eibarren AKEBAko kideok euskararen aldeko diskurtsoa berritzea.
- Euskaraz bizi nahi dugunok ahalduntzea
- Motibatzea eta aktibatzea, bai beti euskalgintzan ibili den jendea, bai urrutiago dagoen gazte jendea.
- Euskaraz bizi ez den jendearengana iristea.
- Hamaika egun euskaraz egitasmorako eibartarrak aktibatzea



DATA: 2017ko abenduaren 19tik 2018ko abenduaren 11ra bitartean

GASTUA: Barne baliabideak
Zabalkunderako kartelak: 104 €
Zaintza tailerra: 80 €
Hizlariak: 1.907 €
GUZTIRA: 2.091 €

BALORAZIOA: Bederatzi berbaldi egin dira guztira, horietako batzuk beste talde edo elkarteekin batzuekin elkarlanean: Eibar KE, Hankamotxak Bertso Eskola, Nalua Eibarko feministen taldea, Arrate Kultur Elkarte, Eibarko C.C.G. As Burgas...

- 1 (17/12/19) Kike Amonarriz: "Euskara bidegurutzean, baita Eibarren ere!" (120 lagun)
- 2 (18/01/23) Paula Kasares: "Umeak euskaldun haztea helburu" (65 lagun)
- 3 (18/02/20) Mahai-ingurua: "Nola aldatu diren gauzak, kamarada" (90 lagun inguru)
- 4 (18/03/22) Mahai-ingurua: "Euskara eta kirola" (50 lagun)
- 5 (18/04/13) Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel: "Feminismoa eta euskara" (35 lagun)
- 6 (18/06/12) Jon Maia: "Desde Extremadura al Bertsolarismo. La historia de una integración" (50 lagun inguru)
- 7 (18/09/26) Lutxo Egia: "Bilbon 30 egun euskaraz. Eibarren, zer? (25 lagun)
- 8 (18/10/23) Josu Ozaita eta Jaime Altuna: "Zer gertatzen da urriaren 31n, iluntzen duenean?" (45 lagun)
- 9 (18/12/11) Mahai-ingurua: "Berbaldi interaktiboa: euskaldun berriak betiko berri? (25 lagun inguru)

Entzule kopuruari dagokionez, alde handia egon da berbaldi batetik bestera; 25-120 bitartean ibili da entzule kopurua. Guztira 500 entzule inguru bildu dira berbaldietara.

IZENBURUA: MUSIKALA

DESKRIBAPENA: Ikuskizun multi-disziplinari bat (dantza, gidoigintza, antzerkia, musika, jantzigintza, kantua, komunikazioa, kudeaketa...) antolatze prozesuak dakartzan onura guztiak dituen, Eibarko nerabe eta gazteen egituratze sozial eta linguistikorako tresna ezin hobea da musikala.

Mogel Isasi Ikastetxea aldaketa fase batean izanik, jatorrizko zentro desberdinetatik elkarren berri ez duten ikasle kopuru handi bat elkartu baita, sorkuntza artistiko bat elkarlanean egitea (musikala) pentsatu zen, taldea kohesionatzeko eta beraien arteko harremanetan euskara txertatzeko tresna eraginkorra izan zitekeelakoan. Hauspoa programaren barruan sartu dute proiektua, eta DBHko ikasleek urritik apirilera bitartean antzerki, kantu eta gidoigintza tailerrak izango dituzte. Josu Mujika dantzari eta koreografoa, Andrea Covadonga aktore eta kantaria eta Jokin Bergara bertsolaria izango dira tailer horien gidari.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea, urria-maiatza bitartean.

EPEA: 2017-2018 ikasturtea, urria-maiatza bitartean.

GASTUA: 7.000 € (2017an 3.000 €, eta 2018an 4.000 €)

BALORAZIOA: 40-60 ikasle aritu dira musikala antolatzen dantza, gidoigintza eta antzerki alorretako profesionalen gidaritzapean (AKEBAIk finantziatuta), ikastetxeko irakasleen eta guraso elkartearen laguntzaz. Isaskara izena eman diote proiektuari ("Isasiko lurrikara"). Hiru emanaldi egin dira Coliseo antzokian, eta 1.200 ikusle izan dira bertan.

- Apirilaren 20an 13:00etan, ikasleentzako emanaldia egin zen, eta, 18:00etan publiko orokorarentzat.

Maiatzaren 7an, 15:30ean Eibarko eskoletako LH 5-6 mailetako ikasleentzako emanaldia izan zen.

IZENBURUA: EUSLIDERRAK

DESKRIBAPENA: Eibarren AKEBAIk DBHko ikastetxeekin lankidetzan *EUSLIDERRAK* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan DBH3ko ikasleek hartzen dute parte zuzen-zuzenean. Helburua hizkuntza ohituretan eragitea da, jabetasuna eta ahalduzko-prozesu baten bidez.

Hiru fase ditu:

- Moskeo kanpaina
- Saioak / tailerra
- Ekintza antolatu

Bi ikasturterako programa da (2018-2019 eta 2019-2020), berez, (2 ziklo). I. zikloko parte-hartzaile eusliderrak beraiek izango dira II. zikloko saioak gidatuko dituztenak.



EPEA: 2018-2019 ikasturtea

GASTUA: 8.325 €

BALORAZIOA: Ikasturtearen lehen hiruhilekoan (2018) hasierako bi faseak burutu dira. DBH 3 duten hiru ikastetxeek hartu dute parte, 280 ikaslek. 15 talde izan dira, eta bakoitzean 3 saio eman dira.

Egitasmoaren 3. fasean 2019ko partean, eusliderrek proiektua garatu behar dute, eta ekintza soziala antolatu. Apirilaren 5ean izango da. Ekitaldiaren antolaketan AKEBAIren laguntza izango dute eusliderrek, behar dituzten baliabideak lortzen laguntzeko eta zabalkundea egiteko.

IZENBURUA: TANTANEZ TANTAN

DESKRIBAPENA: TANTANEZ TANTAN bi urtetik behin Eibarko Euskalgintzak antolatzen duen giza katea da, eta aurten *Eibarren* AKEBAIren babesarekin antolatu da. Eguerdiko 12:00etan gantxila Urkizuko iturrian bete eta eskuz esku Untzagara ino eraman da, euskararen olatua irudikatuz.



DATA: 2018ko maiatzaren 19an

GASTUA: 1.254 €

BALORAZIOA: Jende ugari bildu da, eta ibilbidean zehar katea osatzeko hainbat taldek eta ikastetxek hartu dute parte. AKEBAIko kirol mahaia ere arduratu da tarte bat kirolariz betetzen. Giza katea Untzagara iritsi ondoren, Euskaraldiaren aurkezpena egin da, eta bertan *ahobizi*, *belarriprest* eta *bihotzgoxo* aurkeztu dira.

IZENBURUA: EUSKARAREN EGUNA

DESKRIBAPENA: Euskaigintzak AKEBAIren laguntzaz eta finantziazioaz antolatu du Euskararen Eguna. **Hau hasiera besterik ez da** lemapean.

EGITARAUA:



EUSKARAREN EGUNA

Elbarko Euskaigintza
AKEBAI

abenduak 2

14:30
HERRI-BAZKARIALDIA
KARPAN

16:30
ERROMERIA
(IRATZAR TALDEA)

10 € (LIMEAK 7€)
TIKETAK SALGAI
XANA / TAPETE / GURIDI
KUPU / ...ETA BERTO!

abenduak 3

19:00
HORMA-IRUDIA
LINTZAGAN

EUSKARALDIA
KONTATU ZURE
ESPERIENTZIA

**HAU HASIERA
BESTERIK EZ DA**



DATA: 2018ko abenduaren 2a eta 3a

GASTUA: 1.257 €

BALORAZIOA: Abenduaren 2an, igandea, 220 lagunek hartu zuen parte Bazkarialdian, eta bazkalosteko erromerian ere gustura egin zuen dantza jendeak.

Abenduaren 3an, Euskaraldiko rolen pegatinak (ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo) itsatsita, bi horma-irudi osatu ziren HAU HASIERA BESTERIK EZ DA" lemapean, eta Untzagako hormetan zintzilkatu ziren.

IZENBURUA: EUSKALTEGIKO PLANTILA

DESKRIBAPENA: Euskaltegiko plantila 11 lagunez osatuta dago, 10 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. 2017/2018 ikasturtean, 3 irakasle-normalizatzaile jardun osoan klaseak ematen aritu dira, jardun erdian aritzeko baimena duen irakaslea bere taldearekin, idazkari akademikoak lan jardunaren erdia karguari dagozkion bestelako lanekin bete du eta zuzendaria karguari dagozkion lanak gehi jardun erdia irakasle lanetan. Demandari aurre egiteko, beste bi irakasle kontratatu behar izan dira: bat jardun osorako eta bestea jardun erdirako. (Kontratatutako irakasle batek beste eskaintza bat izan du eta gabonetan lana utzi du, beraz, urtarriletik aurrera beste irakasle bat kontratatu behar izan da bere ordez)

Irakasle bat normalizatzaile lanetan aritu da Euskara zerbitzuan, beste batek Euskararen Plan Estrategikoaren dinamizatzaile lanetan, beste bat Pertsonal sailean zerbitzu eginkizunetan, eta laugarren bat itzultzaile lanak egin ditu udalean.

Zuzendaria
Idazkari Akademikoa
4 Irakasle
Irakasle bat aldi baterako kontratatuta, ikastaro osorako.
Irakasle bat aldi baterako kontratatuta, gabonak arte
Irakasle bat aldi baterako kontratatuta, gabonetatik aurrera
Administraria

EPEA: 2017 - 2018 ikasturtea

GASTUA:

BALORAZIOA: Euskaltegiak gero eta zailtasun handiagoa dauka ikasle kopurua mantentzeko eta eskola-orduei eusteko; Euskara Arloan, berriz, proiektu berriak direla eta, gero eta lan gehiago dago, beraz, irakasle batzuk Euskaltegitik Euskarara pasatu dira dagoeneko, 2017 - 2018 ikasturtean bat izan da. Hala ere, kanpaina bereziei eta demandari aurre egiteko aldi baterako 3 irakasle kontratu behar izan dira.

IZENBURUA: EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua **16 urtetik gorakoei** zuzenduta dago. Europear Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako **maila guztiak** eskaintzen ditu, hau da, A1etik hasita C2ra arte, **goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan**.

Neguko ikastaroan, **Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntzan** izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean modulu ezberdinak aukeratu daitezke (Astean 10 ordu asteleheneretik ostegunera, astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 eta C2 mailetan), ikastaro trinkoak, 100 edo 60 ordukoak (xede berezikoak badira)...

Autoikaskuntza tutoretza eta mintza-saioekin eskaintzen da.

Uda ikastaroan, 100 orduko **aurrez aurreko klaseak** izaten dira bakarrik.

Ikastaro berezien artean, hauexek eskaintzen dira: Etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), Mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei, gurasoei... zuzendutako ikastaroak, enpresetakoak, IRALEkoak...

Azterketa prestakuntza eta HABEko **azterketa deialdietara aurkezteko aukera** ere eskaintzen da.

2017-2018 ikasturtean, A1, A2 eta B1 **mailak egiaztatu** ahal izan dira Euskaltegian ebaluazio jarraituaren bitartez.

Euskaltegiak **Liburutegi zerbitzua** (mailari egokitutako liburuak maileguan) eta **Ordenagailu gela** (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak irakasleen eskura) ere erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

BALORAZIOA: Maila guztiak eman dira. Aipatzekoa da C2 maila lantzeko talde bat osatzea oso zaila dela eta azken urteotan, urtero lortu dela maila horretako talde bat izatea.

Ikasle gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 37 ikasle izan ditugu.

Ikastaro eta talde berezien artean, hauexek izan ditugu: *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik sortutakoak (3 talde), Jubilatuen talde bat, eta beste bat DEBEGESA enpresan, azken hau autofinantzatutakoa, hau da, HABEren diru-laguntzatik at.

IZENBURUA: MATRIKULA EPEAK ETA EGUTEGIA

DESKRIBAPENA: Ikasturtea bi alditan banatzen da, negu ikastaroa (urria-ekaina) eta uda ikastaroa (ekaina-uztaila). Negu ikastaroaren matrikulaldi nagusia irailean izaten da, baina urtarrilean berriz zabaltzen da eskaerari erantzuteko eta taldeak osatzeko. Uda ikastaroaren matrikulaldia, ostera, ekainean izaten da. Negu ikastaroa urriaren lehenengo lanegunean hasten da eta San Juan jaien aurreko azken lanegunean amaitzen. Uda ikastaroa San Juan jaiak igaro eta lehenengo lanegunean hasten da eta 20 laneguneko iraupena du.

2017-2018 ikasturteko egutegia eta matrikulaldiak

Iraila 2017	Urria 2017	Azaroa 2017	Abendua 2017
A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I
1 2 3	1	1 2 3 4 5	1 2 3
4 5 6 7 8 9 10	2 3 4 5 6 7 8	6 7 8 9 10 11 12	4 5 6 7 8 9 10
11 12 13 14 15 16 17	9 10 11 12 13 14 15	13 14 15 16 17 18 19	11 12 13 14 15 16 17
18 19 20 21 22 23 24	16 17 18 19 20 21 22	20 21 22 23 24 25 26	18 19 20 21 22 23 24
25 26 27 28 29 30	23 24 25 26 27 28 29	27 28 29 30	25 26 27 28 29 30 31
	30 31		
Urtarrila 2018	Otsaila 2018	Martxoa 2018	Apirila 2018
A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I
1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4	1 2 3 4	1
8 9 10 11 12 13 14	5 6 7 8 9 10 11	5 6 7 8 9 10 11	2 3 4 5 6 7 8
15 16 17 18 19 20 21	12 13 14 15 16 17 18	12 13 14 15 16 17 18	9 10 11 12 13 14 15
22 23 24 25 26 27 28	19 20 21 22 23 24 25	19 20 21 22 23 24 25	16 17 18 19 20 21 22
29 30 31	26 27 28	26 27 28 29 30 31	23 24 25 26 27 28 29
			30
Maiatza 2018	Ekaina 2018	Uztaila 2018	Abuztua 2018
A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I
1 2 3 4 5 6	1 2 3	1	1 2 3 4 5
7 8 9 10 11 12 13	4 5 6 7 8 9 10	2 3 4 5 6 7 8	6 7 8 9 10 11 12
14 15 16 17 18 19 20	11 12 13 14 15 16 17	9 10 11 12 13 14 15	13 14 15 16 17 18 19
21 22 23 24 25 26 27	18 19 20 21 22 23 24	16 17 18 19 20 21 22	20 21 22 23 24 25 26
28 29 30 31	25 26 27 28 29 30	23 24 25 26 27 28 29	27 28 29 30 31
		30 31	

Matrikulazioa

Neguko ikastaroa

Uda ikastaroa

EPEA: 2017-2018 ikasturtea

BALORAZIOA: HABEk ezartzen dituen epeak errespetatu dira eta egutegia bete da. Hala ere, epez kanpo etorri den pertsonari dagoen eskaintza azaldu zaio eta matrikulatzeko aukera izan du.

IZENBURUA: TASAK ETA TARIFA BEREZIAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. Ikusi [ORDENANTZA FISKALAK](#)



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

GASTUA: 22.835,25

BALORAZIOA: Ikasturte honetan 143 ikasle izan dute tarifa bereziren bat (% 66,2)

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 3 ikasle (% 1,4)
- DBE-RGI izateagatik: 8 (% 3,7)
- Guraso izateagatik: 59 (% 27,3)
- Dendari, ostalari edo zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 10 (% 4,6)
- Enplegatua izateagatik: 5 (% 2,3)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 7 (% 3,3)
- Langabetua izateagatik: 26 (% 12)
- Ikasle izateagatik: 25 (% 11,6)

IZENBURUA: TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA

DESKRIBAPENA: 2017/2018 ikasturtean 216 ikasle ibili dira Euskaltegian 18 taldetan banatuta, guztira 31.637 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

2017/2018		Talde kopurua	Emandako ordu kopurua	Ikasle kopurua
Negu Ikastaroa	Aurrez aurre	17	30.492	167
	Autoikaskuntzan	-	-	37
Uda Ikastaroa	Aurrez aurre	1	1.145	12

Maila guztiak eman dira:

A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	
Hasierako erabiltzailea	Oinarrizko erabiltzailea	Erabiltzaile independientea	Erabiltzaile aurreratua	Erabiltzaile gaitua	Erabiltzaile aditua
- 2 talde 335 ordukoak - 2 talde 100 ordukoak (gurasoak) 41 ikasle	- 2 talde 335 ordukoak - talde 1 100 ordukoa (gurasoak) 31 ikasle	- Talde 1 335 ordukoa - Talde 1 100 ordukoa (jubilatua) 20 ikasle	- 2 talde 335 ordukoak - Talde 1 100 ordukoa (Uda Ikast.) 39 ikasle	- 2 talde 335 ordukoak - Talde 1 175 ordukoa - Talde 1 15 ordukoa (Debegesa) - Talde 1 16 ordukoa C1etik gora (Debegesa) 39 ikasle	- Talde 1 169 ordukoa (+ tutoretza orduak autoikas-kuntzan) 9 ikasle
Autoikaskun. 4 ikasle	Autoikaskun. 3 ikasle	Autoikaskun. 3 ikasle	Autoikaskun. 6 ikasle	Autoikaskun. 12 ikasle	Autoikaskun. 9 ikasle

EPEA: 2017-2018 ikasturtea

BALORAZIOA: 2017-2018 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 38 ikasle gutxiago izan ditugu, aurrekoan bazirudien beheranzko joera gelditu egin zela, baina aurten ezin dugu gauza bera esan. Orduetarako dagokienez, 7.947 ordu gutxiago eman dira. 18 talde izan ditugu aurten, iaz baino 3 gutxiago. Aurten C1eko astean 5 orduko taldea errekuiperatu dugu, AISA talderik eta IRALEko talderik, berriz, ez dira sortu. *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik 100 orduko 3 talde izan ditugu. Taldeetan ratioa baxuagoa izan da.

IZENBURUA: IKASLEAREN PROFILA

DESKRIBAPENA: 2017/2018 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

Sexua:	
Emakumezkoak	158 (%73,1)
Gizonezkoak	58 (%26,9)
Ikasketa maila:	
Lizentziatuak	49 (%22,7)
Diplomatuak	34 (%15,7)
Magisteritza	9 (%4,2)
UBI-LHII	57 (26,4)
Eskola gradu.	51 (23,6)
Beste	16 (7,4)

Lan egoera:	
Lanean edo ikasten:	139 (64,4)
Langabezian:	77 (35,6)
Adina:	
16 - 25	37 (%17,1)
26 - 30	17 (%7,9)
31 - 35	25 (%11,6)
36 - 45	66 (%30,6)
46 - 50	29 (%13,4)
>50	42 (19,4)



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

BALORAZIOA: Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasle gehienak, %73,1 emakumezkoak izan dira. Titulazioari erreparatuta, gehienak titulaziodunak (goi eta erdi mailakoa edo goi mailako lanbide heziketa), eta batez besteko adina 36 - 50 urtekoa. Azken urteotan bezala, langabetuen kopurua altua izan da: %35,6.

IZENBURUA: HABEren AZTERTZAILEAK

DESKRIBAPENA: Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatzakainak aldera (deialdi itxia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia) eta azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan ditu aztertzaileak. A1 eta A2 mailetan ere, nahiz eta ebaluazio jarraitua egin, bi irakasle daude izendatuta horko aztertzaileak izateko. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzaileek azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

GASTUA: Bateratze saioetara joateko egiten diren Km-ak.

BALORAZIOA: Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzaileak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun.

IZENBURUA: KANPO EKINTZAK

DESKRIBAPENA: Ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak dira. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte eta beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatzen dituzte. Eskaintza aztertu egiten da eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartzen da proposamena taldeetan zabaldu baino lehen, baldin eta ekintza hori eskola orduetan egiten bada. Bestelako ekintzen berri zabaltzen da eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

2017ko URRIA	<ul style="list-style-type: none">• "Itzalitako kalabazen berpiztea" hitzaldia. Portaleko Areto Nagusian.• "Berbetan" programaren aurkezpena. Euskaltegian
2017ko AZAROA	<ul style="list-style-type: none">• Gaztañerre (apainketa eta informazioa). Euskaltegian• Filmazpit: "Fenix 11*23". Portaleko Areto Nagusian


2017ko ABENDUA	<ul style="list-style-type: none"> • Gabonetako otarraren zozketa. Euskaltegian • "Idiot txou" antzezlan. Coliseo antzokian. • "Jon Fiz, moda diseinatzailea" erakusketa Museoan • "Jose Kareagaren koadroak" erakusketa Portaleako erakusketa gelan • "Gipuzkoa argitu" tailerra. Euskaltegian.
2018ko URTARRILA	<ul style="list-style-type: none"> • San Blas opilak egiten. Portaleako sukaldaritza gelan
2018ko OTSAILA	<ul style="list-style-type: none"> • "E-berba lehiaketa". AEK, Udal Euskaltegia/Euskara Sailsa. • Filmazpit: "Hasi berria". Euskaltegian • "Nola aldatu diren gauzak, kamarada" hitzaldia. Portaleko areto nagusian. • "Ez dok hiru antzerkia" Coliseo antzokian
2018ko MARTXOA	<ul style="list-style-type: none"> • "Txerriboda" antzezlan. Antzerki jardunaldiak. Coliseo antzokian • "Sherezade eta tipularen azalak" antzezlan. Antzerki jardunaldiak Coliseo antzokian.
2018ko APIRILA	<ul style="list-style-type: none"> • Filmazpit: "Keeper". Portaleako Areto Nagusian.
2018ko MAIATZA	<ul style="list-style-type: none"> • "Sendabelarrak" Ikastaroa. Portaleko sukaldean • "Dantza ikastaroa" Portaleko ikastaro gelan. • Armagintza museora bisita. • "Tantanez tantan" Gantxilla eskuz esku. Eibarko kaleetan. • Markiña-Mutriku txangoa.

GASTUA: 635,69 €

BALORAZIOA: Orokorrean ona izan da. Baina beti kontuan hartu behar da, ekintza batzuetan ikasleak berak hala nahi duelako parte hartu duela eta beste batzuetan irakasleak edo taldeak bultzatuta; azken hauetan normala da denon satisfazio maila berdina ez izatea.

IZENBURUA: LIBURUTEGI ZERBITZUA

DESKRIBAPENA: Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburuen mailegu zerbitzua. Euskaltegian matrikulatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratzen du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 3 hilabetekoa da. Eskaintzen diren liburu gehienak eleberriak dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.



EPEA: 2017-2018 ikasturtea

GASTUA: 221,65 euro

BALORAZIOA: Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok eta askok, paper batean, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. Ikasturte honetan 19 liburu erosi dira, ikasleek 150 aldiz erabili dute mailegu zerbitzu hori eta 19 liburu daude erreklamaturik itzuli ez direlako.